

Kultura

Ana Maria Valderrama biolinistaren kontzertuagaz abiatuko dute Musika Hamabostaldia Durangon > 12



Lehior Elorriaga

Bost belaunaldiren ondarea

Mancisidor bitxi-dendak 150. urteurrena ospatuko du gaur, Andra Mariko dendan. Mende eta erdi bete dituen komertzio bakarrenetakoa da Durangon. Urtemugaren harira, ikerketa historikoa egin dute > 4



Maider Unda erretiratu egin da

Azken hamarkada bietan borroka libreko erreferentea izan ostean, Maider Unda erretiratu egin da. Orain beste lehentasun batzuk dituela azaldu du agurraren arrazoiak emateko eskaintako prentsaurrekoan. Kirolari handien palmaresa du. Londresko Joko Olinpikoetan bronzeko domina irabazi zuen, eta Beijing-ekoetatik diploma olinpikoagaz itzuli zen. Munduko txapelketak eta Europako txapelketak kontuan hartuta, beste hainbat domina irabazi ditu. Hala ere, egindako bideagaz gertzen da, hartutako erabakiekin: "Erabaki horiek eraman gaituzte iritsi garen tokiraino". > 15

"Nire marka mundu digitalean kokatzeko eta euskararekin lotzeko .EUS naiz"

Aiert Buruaga

Durango

Arkitektura & Diseinua

ab-ark.eus



Ni Interneten .EUS naiz

Dagoeneko 6.000 enpresa, erakunde eta lagunek .EUS domeinua dugu



Eskatu zurea!

www.domeinuak.eus

gure domeinua

Durango > 3

Hiri debekatuaren mapako puntu beltzak eguneratuko dituzte

Otxandio > 2

20. Korrika Otxandiotik abiatuko da, martxoaren 30ean

Atxondo > 8

Plaza eta udaletxe ingurua gunerean bateratu gura dituzte

Zornotza > 6

Gala artistikoa egingo dute La Otra Mirada elkartearen alde

Herririk herri

OTXANDIO J.D./M.O.

Otxandiotik Iruñerako ibilbidea egingo du Korrikaren 2017ko edizioak, martxoaren 30etik apirilaren 9ra. 37 urte dira jada lehen Korrika egin zenetik. 1980an eman zituen lehen pausoak, eta aurreko dagoeneko 20. edizioa beteko du. Zita berezi horri hasiera emateko, AEK-k Otxandio aukeratu du; handik Euskal Herria zeharkatu eta Iruñean amaituko da.

Mertxe Mugika AEKren koordinatzaile nagusiak eta Asier Amondo Korrikaren arduradunak eman zituzten Korrikaren 20. aldiko xehetasun guztiak martitzenean Donostiako San Telmo museoan eskainitako prentsaurrekoan.

Leloa: 'Batzuk'

'Batzuk' izango da Korrikaren leloa, hizkuntza, kultura eta mundu ezberdinek osatzen duten aniztasuna irudikatu guran. 'Bat' eta 'zuk' hitzen arteko jolasa da, herritarrek euskara gonbidatzeko: "Hizkuntzen

20. Korrika Otxandion hasiko da, martxoaren 30ean

Otxandiotik Iruñerako bidea egingo du Korrikaren 2017ko edizioak



Azken Korrikaren edizioa Durangaldekik igaro zen une bat. Asier Arroita

eta hiztunen berdintasunaren aldeko jaira". Asier Amondok azaldu du leloa: "Hizkuntza,

kultura, mundu 'bat' sendotzeko bidean, 'zuk' ere bat egin deza-kezu, zeuretik, zeure hizkuntza

eta kultur aniztasun unibertsala bizi ditzazun: ikasiz, erabiliz, ahalbidetuz".

Sortzaileei omenaldia

Edizio honetan Korrikaren sortzaileak omenduko dituztela azaldu dute AEK-ko arduradunek. "Korrika euskalgintzaren eta euskararen erreferentzia bihurtu da, eta atzerrira ere esportatzen dugu". Gainera, euskalgintzan egiten duen ekarpenari garrantzia eman diote: "Korrika da elkarlanaren eta auzolanaren eredurik argiena. Korrikak batu egiten gaitu eta batu egingo gaitu".

AEK-k Euskal Herri euskalduna du helburu, eta euskara "aukera berdintasunean" bizi behar dela uste dute: "Gure herriko hizkuntza da euskara, munduan nor izateko modua".

Mugikaren ustez, euskaren normalizaziorako ezinbestekoa da helduen espazioek ere euskaraz funtzionatzea: "Horixe izan da AEKren urteotako zeregin nagusia". Hala ere, zehaztu duenez, "oraindik ere euskaltegiei zuzendutako baliabideak ez dira nahikoak".

Lagunartean euskaraz abesteko aukera Berrizen



Berrizarrak martitzeneko lehenengo entseguan.

BERRIZ M.Z.

Hileko bigarren eta laugarren martitzenetan, hainbat herritarrek eskatuta, lagunartean euskaraz abesteko aukera dago Berrizen. Herriko musikarien laguntzagaz, hainbat herritar Kultur Etxe berrian batzen hasi dira iluntzean, 20:00etatik 21:00etara.

Taldea asteon martxan jarri den arren, orain hilabete batzuk hasi zen sortzen. "Xabier Amurizari omenaldia egiteko asmoz hainbat berriztar elkartzeko ondoren, herritarrek taldetxo bat sortzeko nahia azaldu zuten", aitortu du Eneritz Gorritxategi trikitilariak.

Beraz, herri mugimendutik sortu den taldea eratzea erabaki zuten. Ondo pasatu eta euskaraz abesteko gogoz dauden herritarrei taldera batzeko deia egin die Gorritxategik.

Bi atxilotu enpresa batean lapurretan egin dutelakoan

Astelehen goizaldean gertatu zen lapurreta

MALLABIA J.G.

Eibarko ertzain etxeko agenteek 32 eta 40 urteko bi gizon atxilotu zituzten joan zen astelehenean, 01:30ean, Mallabiko Goitondo industrialdeko enpresa batean lapurretan egin zutelakoan.

Ertzaintzak prentsa oharrean azaldu duenez, alarma piztu zela-eta, enpresa horretako jakinarazpena jaso zuten. Minutu batzuk geroago, kale-jantzian joan ziren agenteek auto bat ikusi zuten BI-2301 errepidean, inguru horretatik irteten. Ertzaintzako iturrien arabera, patruila-autoari abiasua eman

zioten, eta hauek izan ziren bi gizonak atxilotu zituztenak.

Kotxea arakatu zutenean, bederatzi bizikleta koadro eta material ugari aurkitu zituzten, ustez enpresa horretan lapurtutakoak.

Ertzainek kotxea arakatu zutenean, bederatzi bizikleta koadro eta material ugari aurkitu zuten

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko azaroaren 11
14. urtea - 653. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



“Hiria geurea ere badela eta zer esana badugula sentitu behar dugu emakumeok”

Emakumeentzat puntu beltzak direnak identifikatuko dituzte Durangon; lehendik 16 daude



Ane Abarrategi Andra Maritik Kanpatorrostetara dagoen tunelean, Durangoko puntu beltzetako batean, hain zuzen.

> DURANGO Markel Onaindia Eraso sexistak edonon eta edonoiz gertatu ahal dira, baina kale edo izkina ilun eta bakartietan arriskua handitu egiten da. Gainera, puntu beltz horiek areagotu egi-

ten dute beldurra emakumeengan. Durangon 16 daude lehendik identifikatuta, eta orain berriak topatuko dituzte emakumeen partaidezagaz. Gaur herritik ibilbide bat egingo dute, 18:00etan,

Andragunetik hasita. Hilaren 24an gaiagaz lotutako berbaldi bat burutuko da, eta abenduaren 17an puntu beltzak eraldatzeko proposamenak egingo dituzte. Ttipi Studioko Ane Abarrategi disei-

natzaileak gidatuko du Hiri Debekatuaren Mapa eguneratzeko prozesua.

Puntu beltzen mapa eguneratzeko, emakumeen parte-hartzea eskatu duzue. Jabekuntzarako balioko du?

Hiria geurea ere badela sentitu behar dugu emakumeok, eta badaukagula zer esana. Hori eginda, badu jabekuntzarako puntu bat, baina hori publiko egin eta ostean proposamenak garatzeko aukera ematen bada, indar gehiago ematen zaio. Hirigintza ez da neutroa, eta emakumeen ikuspegia bertan txertatzea da proiektu honen helburua.

Puntu beltzak eraldatzeko, zer ekintza egin ahal dira? Zer aurreikusten duzu?

Kasu batzuetan, argiztapena izan daiteke. Baina beste batzuetan, bizirik bako leku batean espazioa sortzea: kale altzariekin, landareekin, komertzio bat zabaldua... Baina jabekuntza sinbolikoa ere izan ahal da. Puntu beltz bat arriskutsu ikusten badugu, agian dinamika bat egin dezakegu denon artean, bertan mural bat margozteza adibidez. Horrela, espazio horretaz jabetzen gara nola-

bait. Ez dago formula bakarra; espazioaren arabera izan beharko da.

Durangon 16 puntu beltz daude, baina berriak topatzera zoazte. Izan ere, herria asko hazi da azken urteetan...

Nire ustez, Durangon eman den hazkuntzak ez du ardatz hartu eguneroko bizitzaren kalitatea. Askotan, lo egiteko auzoak sortu dira, dentsitate baxuko etxebizitzak, zerbitzurik bako eremuak... Hori ere aztertu beharko dugu mapagaz. Auzo berri horietara joan eta emakumeen bizipenak jasoko ditugu.

Hirigintza inklusiboa edo barneratzailea lantzen duzue. Zertan datza?

Hirigintza barneratzaileak pertsonentzat hiri atsegina goak sortzea planteatzen du, eta ez emakumeentzat bakarrik. Hiria irisgarria izan behar da, espazio kolektiboak eduki behar ditu, eta zeregin produktiboetatik harago, erreproduktiboak ere kontuan hartu behar ditu. Hau da, pertsonen eguneroko bizitza, diseinuaren zentroan jarri behar da. Horrek dakarrena da sekulako aldaketa egin beharko genukeela hirien diseinuan. Adibidez, autoaren zentralitatea gainditu, sozializatorako espazioak sortu... Kasu honetan, emakumeen ikuspuntua mahai gainera ekarri eta pausoak ematen hasteko aukera polita izan daiteke.

Gorabide elkarteak boluntarioak behar ditu

Durangon lagundu gura dutenen bila dabilta

> DURANGO A.E.

Adimen ezgaitasuna duten 40 eta 50 urte arteko pertsonen laguntzeko boluntarioen bila dabil Gorabide, Durangon. Laguntza hauek partaideen denbora librean izaten direla jakinarazi du Gorabidek; zehazki, eguzten eta zapatu arratsaldean. Hala ere, eguen eta barikuetan ere izan daitekeela adierazi dute. Ordutegiari dagokionez, astean zehar 18:00etatik 20:00etara izango litzateke, eta asteburuan 16:00etatik 20:00etara.

Horrez gainera, lagundu gura duenak ikastaroak jaso ahalko ditu.

Eskerrak boluntarioei

Bestalde, Gorabideko kideek eskerrak eman gura izan dizkiete eurekin lanean dabiltzan 38 boluntarioei. Hauei esker lortzen

baitute adimen ezgaitasuna duten pertsonen euren denbora librean ondo pasatzea.

Izena eman gura duenak 94 443 12 10 telefonora deitu edo tiempolibre@gorabide.com helbidera idatzi dezake.

Adimen ezgaitasuna duten 40 eta 50 urte bitarteko pertsonen laguntzeko boluntarioen bila dabilta

Astean zehar 18:00etatik 20:00etara izango litzateke, eta asteburuan 16:00etatik 20:00etara

San Fausto auzoaren 60. urtemuga ospatuko dute

> DURANGO M.O.

Biharkoa egun berezia izango da Durangoko San Fausto auzoan. Izan ere, auzoaren sorreratik 60 urte pasatu dira, eta efemeride hori dela eta, ospakizuna egingo dute auzotarrek. Industrializazioaren eraginez kanpotik lanera etorri zirenentzat eraiki zen auzoa.

Gure San Fausto Berria elkarteak eta San Fausto zentro sozialak antolatu dute egitaraua. 12:00etan omenaldia egingo diete nagusiei; hain zuzen ere, auzoko lehen belaunaldiei. Gero, poteoan irtengo dira, eta 14:30ean bazkaria edukiko dute, pilotalekuan. Burduntzian eginiko bildotsa dastatu ahal dute auzotarrek. Gero, trikitiak lagunduta pasatuko dute arratsaldea.



Durangoko Mendiaren Arriakomunazgoa



Durangaldeko Behargintza

LANGABEENTZAKO DOAKO IKASTAROA

LANA BILATZEKO TRESNAK ETA ESTRATEGIAK

ORDU KOPURUA
40

NORENTZAT
Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Durangon, Elorrión, Garain, Iurretan, Izurtzan, Mañarian eta Zaldibarren bizi diren langabeentzat.

NOIZ
2016ko abenduaren 12tik 23ra.

ORDUTEGIA
Astehenetik ostiralera, goizez.

TOKIA
Durangaldeko Behargintza.

IZENA EMATEKO EPEA
2016ko azaroaren 30era arte.



Durangaldeko Behargintza

Laubideta, 6 DURANGO Tel.: 946 232 522

Ordutegia: astehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara
www.mdurango.org



Mateo Mancisidor, Andra Mariko dendaren alean.



Lamikiz etxea Andra Mariko kanpandorreari lotuta.

“Mancisidor familiak sustrai oso sendoak izan ditu Durangon”

Durangoko Mancisidor erloju eta bitxi-dendak 150 urteko ibilbidea ospatuko du gaur



Leñor Elorriaga

DURANGO Jone Guenetxea **Negozio gutxi egongo dira Durangon mende eta erdiko ibilbidea ospatzera heldu direnak.** Mancisidor familiak ibilbide horren azterketa historikoa egin du urtemuga behar den moduan ospatzeko. Maite Mancisidor da orain familia-negozioaren buru. Bere aurretik, beste lau belaunalditan bonbardaketa zein krisiei aurre egin diete. Badago zer ospatu, beraz.

Zer antolatu duzue 150. urtemugarako?

150. urtemuga ez nuen pasatzen utzi gura ezer egin barik. Urtea aurrera zihon, eta pentsatu genuen Durangoko jaien eta gabonen artean zer edo zer egitea. Urtemuga bezeroekin

eta urte hauetan guztietan gurgaz egon den jende guztiagaz ospatzea da asmoa.

150 urteko ibilbidea aztertu duzue. Zelako prozesua izan da hori?

Nekien gauza bakarra ahoz ahokoa zela konturatu nintzen. Horregatik, historia dokumentatuta edukitzea gura nuen. Horretarako, aditu batengana jo nuen. Jon Ander Ramos historialariagaz kontaktuan jarri nintzen, eta lanari ekin genion. Genekizkien gauzak azaldu genizkion Jon Anderri, eta bera izan da artxiboetan-eta ikerketa egin duena.

Orain dela 150 urte, zelan sortu zen familia negozioa?

José Mancisidor Martija Mu-

trikutik etorri zen, eta armagina zen. Antza denez, Juana Uriguen Olalde bere emaztea izan zenaren familia durangarra zen, eta dendariak ziren. Badi-rudi dendariak posizio sozial hobe zutela, eta beraz, ezkondu orduko denda bat ipini zioten Joseri, euren alaba dendari batez ezkondu zedin, eta ez armagin batez. Horrela, ezkondu aurretik zabaldu zutela denda esan digute beti.

Ordutik hona, zenbat belaunaldi igaro dira?

Ni bosgarren belaunaldia naiz. Lehenengo José izan zen. Gehien bat erloju-denda izan zen. Jon Anderrek aurkitu duen dokumentu baten arabera, 1879koa, Durangoko Udalak ordainketa bat egin zion erloju

bat konpontzearen. Ondoren, haren seme Mateok hartu zuen negozioaren ardura. Badakigu udal erlojugilea izan zela urte askoan, 1894tik 1932ra. Hurrengo, Mateoren seme Eudasio izan zen, 60ko hamarkadara arte. Horren ondoren, nire aita Gonzalok hartu zuen lekukoa. Gizonen belaunaldi horiek neuk apurtu ditut (barrez).

Zelakoa izan zen zure aitaren sasoia?

Erloju denda mantendu arren, dendan bitxien atalak indar gehiago hartu zuen. Nire aitari beti gustatu izan zaizkio bitxiak diseinatzea, harriak solte erosi eta gero muntatzea...

Urte hauetan, denda beti egon da Andra Marian leku berean kokatuta?

Gutxi gorabehera leku berean egon da beti, nahiz eta eraikina ez den bera. Lehen Lamikiz etxea deitzen zen, eta Andra Mariko dorrera lotuta zegoen. Geroago, eraikin hura bota eta berria eraikitzerakoan, udalak Kanpatorrostetik pasoa uztera behartu zituen. Eraikin berria metro batzuk harantzago eraiki zen.

Bonbardaketak eraginik izan zuen elizatik hain gertu?

Baietz esango genuke, baina ez familian entzun dugulako, Jon Anderrek topatutako datuengatik baizik. Hau kaltetuta gelditzean, denda eta familia Andra Mariko beste aldera pasatu zirela suposatzen dugu. Akretan baimen bat agertzen da, eta Andra Maria 1era lekualdatu zirela dio bertan. Familiak lotzen hasi ginen, eta errol-

dan ikusi dugu 1938an Uriguen familia Andra Maria 1ean bizi izan zela.

Erloju zaharrik kontserbatzen duzue?

Bi bakarrik. Bata, zutunik jartzekoa, dendaren sarreran dagoena XIX. mendeko bigarren zatikoa da. Bestea, poltsikokoa da. Familiaren erlojuak erakutsi gura nituen, eta aztertzerakoan konturatu gara poltsikokoa 1740-1780 urte artekoa dela. Egilearen izena bertan inskribatuta du.

Familia negozio ugari izan dira Alde Zaharrean, baina gehienak zarratuta daude. Zein da zuen sekretua?

Uste dut familia oso errotuta egon dela Durangon. Sustrai oso sendoak izan dituzte. Mateo bera pertsona oso ezaguna izan zen. Gainera, sasoi hartako Durangon kokatu behar dugu. 4.000 biztanle izango zituen, eta Mateo oso aktiboa izan zen. Fotografoa, zinegotzia, elkarte kulturaletako kidea... udal erlojugileak ziren. Nire aita ere oso durangar sentitzen da. 30 urtean Zornotzan bizi arren, beti egon da Durangon erroldatuta, beti esan zuelako Durangora itzuli gura zuela. Ahalegin handia egin dute honi eusteko.

Zu zelan heldu zinen negoziora?

Ni izan naiz negozioa gutxien bizi izan duena. Ni Zornotzan bizi nintzen. Aita itsu gelditzen zebilen, eta dendan berari laguntzea erabaki nuen. Lotura nagusitan gertatu da.

Zeintzuk dira XXI. mendeko erronkak honelako negozio batean?

Interneteko salmenta, denda kate handiak... Horri guztiari aurre egitea da komertzio txikiaren erronka. Lan asko egin behar da, eta horrela goaz aurrera. Kontsumo ohiturak aldatzen ari dira.

Durango 6 langabe kontratatuko dituzte, birziklapena zabaltzeko

Durungaldeko Enplegu Planak martxan daude

DURANGO Markel Onaindia Lanbideek sustatutako Enplegu Planak martxan daude Durangaldean ere. Alde batetik, Durango Udalak programa bat garatuko du, eta beste herriei begira, Elorriokoak edukiko du ardura. Durangon, sei langabe hartuko dituzte, eta birziklapenaz kontzientziatzea izango

guruan galdetuko dute berriemaileek, informazioa emateaz aparte. Horrela, Durango birziklapenaren inguruko datuak jaso ahalko ditu udalak. Azaroaren 17ra bitartean eman ahalko da izena, Lanbiden. Lan merkaturuan sartzeko zailtasunak dituzten sektoreei begira sustatu dute plana.

Elorriotik eskualdera

Bestalde, Elorrioko Udalak 138.000 euroko diru-laguntza jaso du. Sei beharginek espazio publikoen eta kaleko altzarien mantenuan jardungo dute; beste batek eskualdeko Turismo Plana eguneratu eta Elorrioko bisita turistikoaren programa antolatuko du; beste batek nekazaritza- produktuak sustatuko ditu.

Bestalde, beste herrietarako zazpi diru-laguntza eskainiko dituzte, langabeak kontratatzeko. Hilaren 30ean amaituko da eskariak aurkezteko epea.

Etxeetako birziklapenaren inguruan galdetuko dute berriemaileek, informazioa emateaz aparte

da euren zeregina. Sei hilean jardungo dute lanean berriemaile lez izendatu dituztenak, eta birziklapenaren inguruko informazioa eskainiko dute, aterik ate.

Datuak jaso

Etxeetako birziklapenaren in-



Hainbat langaberi emango diete lana datozen hileetan.



Alde Zaharreko hainbat etxeri, esaterako, tasarik altuena kenduko diete, lehenik zaku berean sartu eta gero.

640 etxeri “pribilegio-tasa” kentzeko akordiora heldu dira

Higiezinaren tasarik altuena 1.000 etxe ingururi ezarri zien udalak hasieran

DURANGO Markel Onaindia Aldundiak katastroaren eguneraketa egin eta gero, maiatzean higiezinaren zerga (IBI gaztelaniaz) arautu zuen udalak. Baina, “pribilegio-tasa” 1.000 etxe ingururi ezarri zitzaizen, eta orain artekoaren hirukoitza ordaindu beharra zuten. EH Bilduk aurreratu du akordioa daukala gobernu taldeagaz, “akats” hori aldatzeko. Atzo egin zen hori lantzeko bilkura – ANBOTOk erredakzioa itxi eta gero – eta azken orduko aldaketarik ezean, azkenean 358 etxek edukiko dute tasa altu hori.

140.000 eurotik gorako balioa emandako etxeei 0,5eko indizea ezarri zien udalak maiatzean, eta, EH Bilduren ustez, “akatsa” izan zen. Antzaenez, trastelekuak eta garajeak kontuan hartu zituzten, eta horren eraginez, etxe askok behar baino balio handiagoa jaso zuten. Guztira, 1.000 etxe inguruk; txalet eta etxe handiez aparte, auzo zaharretako edota Alde Zaharreko etxe askok, adibidez.

EH Bilduk azaldu du arauaren aldaketa bultzatu dutela, “gutxien dutenek gutxiago ordaintzeko”. Pribilegiorako kon-

tuan hartuko den balioa 180.000 eurotik gorakoa izango da; 2017an 0,5eko indizea edukiko dute, eta 2018an 0,6koa. Besteek, 0,2ko indizea edukiko dute.

Zerga bilketa nabarmen igoko da, eta irabazi horregaz, irizpide sozialen arabera diru-laguntzak eskainiko dituzte – maiatzean jada iragarri zuten –, eta EH Bilduk alokairu sozialeko politikan inbertitzea ere eskatu du.

Horrez gainera, laguntza emateko, Herritarren Arreta Zentroan langile bat ipintzea eskatu du koalizioak.

Durango hirigintzaz gogoeta, kafe baten bueltan

Plan orokorraz world kafe estiloan egingo dute hausnarketa, azaroaren 17an, 17:00etan

DURANGO M.O. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusten hasi dira Durangon, datozten urteetan herria zelan antolatu erabakitzeko. Diagnostikorako lehen batzarra egin zituzten, eta

orain, oinarri horiek kontuan hartuta, aurrera begira ipiniko dira. Horretarako, hausnarketa egingo dute azaroaren 17an, world kafe estiloan. Elkartegian izango da saioa, 17:00etan hasita.

Hain zuzen ere, denen artean etorkizunera begirako ibilbide orri bat zehaztea izango da zeregin nagusia. 2030ean Durango zelan egotea gura duten aurreikusiko dute, eta horretarako ekintzak pentsatuko dituzte.

Denen artean etorkizunera begirako ibilbide orri bat zehaztea izango da zeregin nagusia

B
BegiraPhoto

Argazkilaritza mintzagai

Azaroak 11 eta 12
Durango (Bizkaia)
begiraphoto.com



Gala artistikoa egingo dute, La Otra Mirada elkartearen alde

Bihar izango da gala, 20:00etan, eta hainbat artistak hartuko dute parte



Orain urte bi egindako galan ere lagun ugari parte hartu zuen.

ZORNOTZA J.D. / M.O. Zornotza Aretoak La Otra Mirada elkartearen aldeko gala artistiko bat hartuko du bihar, azaroak 12. Iluntzean hasiko da, 20:00etan, eta 6 euroko sarrera solidarioa ipini dute. Durangaldeko hainbat artistak parte hartuko dute ikuskizunean.

La Otra Mirada elkarte humanitarioak behartsuei laguntzeko proiektuak ditu martxan Senegalen eta Mongolian, eta horietako bat finantzatzeko

balioko du biharko jaialdiak. Ezgaitasunen bat dutenentzat – aniztasun funtzionala – eguneko zentro bat sustatzen dute Mongolian, antzinako ospitale bat izandako eraikin batean. Hango elkarte batek helarazi zien zentro horren beharra La Otra Miradakoei, Elena Ariznabarreta kideak adierazi duenez.

Dantza eta musika Jon Montero abeslari abadiñarrak antolatu du jaialdia, eta

beraz aparte, hurrengoek parte hartuko dute: Oihane Alakano dantzariak, Julio Veiga abeslariak eta Dairi Brown dantzari kubatarrak. Usue Martinez abeslariak aurkeztuko du gala.

Sarrerak hartzeko Sarrerak Durangoko Nere, Lupetza eta Caledonia tabernetan, Iurretako Ramon eta Gauargi tabernetan, Abadiñoko Pub Doherty's-en eta Zornotza Aretoan daude salgai.

Desagertu egin da Acción Social Amorebieta

Elkarteari eskaintzeko “denbora falta” da arrazoia

ZORNOTZA J.Derteano Zornotzan premia duten familiei laguntzen zien Acción Social Amorebieta (ASA) elkarteak desagertu egin da. Bost kideren artean kudeatzen zuten, eta taldeko beharizaneiei erantzuteko “denbora falta” izan da euren ibilbidea amaitutzat emateko arrazoi bat, ASako kideen esanetan. Horrez gainera, azken aldian, Etxe Gorrian zuten euren lokalean birritan lapurtu dute, eta lapurreta bakoitzean ordenagailu bat ostu diete.

ASA 2014ko apirilean sortu zuten. Harrezkero, Zornotzan beharizana zuten familientzat

elikagaiak batzen eta banatzen jardun dute. Une batzuetan, 80 bat familiari laguntzen aritu izan dira.

Bizkaiko Elikagaien Bankuan jasotzen zituzten elikagai batzuk, baina herritarrei biderratuak kanpaina propioak ere egin izan dituzte urte bi eta erdian.

Une batzuetan, Zornotzako 80 bat familiari lagundu izan diete askotariko elikagaiak banatuz



Elikagaiak gordetzeko biltegia Etxe Gorrian zuten. Lehior Elorriaga

Elgetako lankideei elkartasuna adierazi diete

ABADIÑO Itsaso Esteban LAB sindikatuak deituta, Cie Automotive taldeko hainbat langilek kontzentrazioa egin zuten

joan zen bariku eguerdian, Injeametal enpresaren atarian. Cie Alfa Decon despidorik ez; Etorkezunari oztoporik ez leloa-



Elgetako Alfa Deco enpresako lankideek ere parte hartu zuten kontzentrazioan.

gaz, ordu erdiko mobilizazioa burutu zuten.

Cie Automotive taldeko Elgetako Alfa Deco enpresako lankideak etorri ziren Abadiñoko kontzentrazio horretan parte hartuz eta enpresaren arduradunek iragarri dizkieten lau kaleratzeak gaitzestera. “Taldek beste enpresetako lankideak ohartarazi” zituen Rafa Prieto Alco Deco enpresako LABen delegatuak. Azaldu zenez, Cie Automotive taldearen zuzendaritza 25 langile dituen Elgetako enpresa “hiltzen uzten” ari da, eta “gurean hasi badira ere, taldeko beste enpresetan ere eragina izango dute” kaleratzeek.

LAB sindikatuak azpimarratu duenez, “Cie Automotive multinazional handi bat da, enpresa berriak erosten eta bost kontinenteetan zehar hedatzen” ari dena, eta aurrean “123 milioko irabazi” dituena. LABek dio kaleratzeen inguruan “behin eta berri” eskatu dituela azalpenak zuzendaritzan, baina ez dutela erantzunik jaso, eta horrek “kezka areagotzen duela”.

EH Bildu: “Udal gobernuak lur publikoa oparitu du”

ABADIÑO Itsaso Esteban Traña-Matienako Errota kultur etxearen ondoko lursail batean hainbat etxebizitza eraikitzeko proiektuan udal gobernuak izandako “kudeaketa kaskarraren” ondorioz udalak 374.088 euro galdu dituela kritikatu, prentsa oharra zabaldu du EH Bilduk. “Hasiera batean 660.332 euroan saldu gura zuten lursaila 286.244tan saldu du” azkenean udalak, “lur publikoa oparituz”, EH Bilduk dioenez. Azken udalbatzarrean Jose Luis Navarro alkateak “operazio bikain”-tzat jo zutenaren bestelako irakurketa egiten du koalizioak.

EH Bilduk azaldu duenez, Carbureibar ondoko hirigintza proiektu horretan enpresa pribatu batek hartu zuten etxebizitza libreak eraikitzeko proiektua, eta babes ofizialeko 20 etxebizitza eraikitzea udalak. Proiektu hori diseinatu

zutenean, baina, etxebizitza pribatu zein publikoetako garajeak sustatzaile pribatuak egitea adostu zuten gobernuak, eta lan horregatik 891.871 euroko zorra egin zuten udalak enpresa eraikitzaileagaz. EH Bilduren arabera, “Udalak ez dauka diru hori, eta bere asmoa babes ofizialeko etxeen eraikuntza eta garajeen zorra enpresa eraikitzailearen bati esleitzea zen, etxebizitzekin espekulatuz”.

Bigarren deialdian, lursail horretan etxebizitza libreak eta garajeak egiten ari den San Fausto enpresari egin diote esleipena. “Inmobiliaria zain egon da, bazekielako momenturen batean udala behartuta egongo zela lurraren prezioa jaistera”, dio EH Bilduk: “Ezin dugu onartu herriaren lurrak gobernu taldearen kudeaketa kaskarraren ondorioz horrela saldu izana”.

Plaza eta udaletxe ingurua gune bateratu bihurtzeko lanak hasiko dituzte

Bidea goratu eta gune osoa maila berean jarri gura dute; lanak 2016an amaitzea da asmoa



Kale Irekiak prozesua gauzatu duen Urak Bide taldeko Saioa Zuazubiskar martitzeneko batzorde irekian.

ATXONDO J.Derteano Apatako gune publikoak zelan berrantolatu pentsatzeko, Kale Irekiak prozesu parte-hartzaileak ondorio argi bat utzi du: Apatan plaza eta bere ingurua dira erdigunea, auzoko bihotza, eta hango eremua errealitate horretara moldatu beharko litzaiteke, protagonismoa oinezkoiei emanez. Bide horretan lehen urratsa emango du udalak, urtea amaitu aurretik.

Udaletxeko alde batean eta kanpotik igogailua jartzen hasi ziren orain 20 bat egun. 81.000 eurotan eman dituzte lanak, eta

60.000 euro diru-laguntzen bidez finantzatu dituzte. Gabonetarako amaituta egongo da. Lan horiek aprobetxatuz, inguruko eremua ere birmoldatu gura dute, Kale Irekiak prozesuko ondorioak aintzat hartuz. Udaletxe ingurua irisgarritasun neurri-tara ekarriko dute, mailak eta zintarriak kenduta. Horregaz batera, udaletxea eta frontoi parreko plaza eremu berean batu gura dituzte. Euskalerrria kalean, Taberna Txikitik bidegurutzera arteko bide zatia altxatu gura dute, eremu osoa maila berean geratu dadin. Horrek plaza-

ko hesiak kentzea ekarriko luke, eta aulkiak birkokatzea.

Proiektu zehatzaren zain daude egunotan. Lan horiek guztiek muga bat dute: udalaren gaitasun ekonomikoa. “Udalaren gaitasun ekonomikoak ematen duenera arte egingo dugu”, zehaztu du Dabid Cobos alkateak. Baina, lan denak —igogailua eta eremuaren berrantolaketa— batera eraman gura dituztela ere azaldu du. Horrela, aurtengo aurrekontuekin ezin bada, lanak datorren urtekoekin amaituko dituztela jakinarazi du.

Egun Euskalerrria kalea irekita dago —noranzko batean— 24 orduetan. Baliteke obrak amaitu ostean goizetan zabalik egotea, eta arratsaldetan eta asteburuetan autoentzat itxita.

Hirubideko bidegurutzea

Kale Irekiak prozesuak Apatako eremu publiko berrantolatzeko ibilbide-orria proposatzen du. Herritarrek eta herriko kolektiboekin batu ostean diseinatu dute. Jasotako ideiak plangintza zehatzetan jaso eta lehenetsun arabera sailkatu dituzte. Bakoitzaren gutxi gobeherako kostua ere jasotzen du. Hori guztia martitzeneko batzorde irekian azaldu zuten.

Herritarren ustez, plaza ingurua da lehenetsun nagusia. Etorkizunean errepideko alde biak —Euskalerrria kalea eta Foruen Plaza— oinezkoek lehenetsuna izango luketen gune komun bihurtzeko eman beharreko pausoak ere azaltzen ditu.

Hirubideko bidegurutzea ere lehenetsun artean sailkatu dute. Errepideko ardatza albo batera metro batzuk mugituz bisibilitatea gehitzea izan daiteke irtenbidea.

Herriko sei argazkilariren lana erakusketan

ZALDIBAR I.E.

Jon Agirre, Antonio Villanueva, Jon Iriondo, Delfin Zubizarreta, Rafa Iraeta eta Joseba Arginzoniz argazkilarik zaldibartarren lanak daude, asteburuan, liburutegi zaharrean ikusgai. Ilargi taldeak antolatu du erakusketa kolektiboa, eta gaur (18:00-20:00), bihar (12:00-14:00 eta 15:00-20:00) eta etzi (12:00-14:00) egongo da zabalik.

Gazteen nahiak sartuko dituzte aurrekontuan

MAÑARIA M.O.

2017ko udal aurrekontua osatzeko, gazteen beharrei leku berezia egingo die udalak. Iaz umekin burutu eta gero, aurtengo prozesuan gazteen nahiak hartuko dituzte kontuan. Joan zen barikuan egin zuten aurkezpena, eta proposamen batzuk jaso zituzten.

Hilaren 25ean izango da hurrengo batzarra, denen artean erabakiak hartzen hasteko.

EH Bilduren kritika katastroaren harira

EAJri “berandu eta gaizki” ibiltzea leporatu dio Elorrioko EH Bilduk



Elorrioko EH Bilduko zinegotziak.

ELORRIO M.O.

EH Bilduko gobernu taldeak gutuna bidali du prentsara, katastroaren eguneraketaz azalpenak eman eta EAJk Aldundian izan duen gestioari kritika egiteko. Hain zuzen, “berandu eta gaizki” ibiltzea egotzi dio koalizioak herrialdeko instituzioari. “Denboran lehenago

eta presarik gabe egin beharko litzatekeela deritzogu”.

Etxeen balioen eguneraketak sortu dituen gorabeheren harira, udalak neurri bat hartu duela azaldu dute. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren tasa murriztea erabaki du, balio katastral orokorra hazten den heinean.

Modu horretan, ordainketa orekatuagoa izango dela uste dute ordezkariak, eta udalak diru-bilketan jasoko duen diru kopurua orain arteko berbera izango da.

Museoa eta elizako organoa ikusteko irteera

IZURTZA J.D.

Argintxu elkarteak Mañarirako goiz-pasa antolatu du azaroaren 20ko domekarako. Mañariko Hontza museoa bisitatuko dute lehenengo, eta elizako organoa ondoren. 10:30ean irten eta 13:00 inguruan bueltatzea aurreikusten dute. Itzultzean, luntxa egongo da. Ekintza zabalda da, eta gura duten denek eman dezakete izena, Argintxun.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Askondon estalkia jartzeko lanek martxora arte iraungo dute

Askondon 850 metro koadro berriztuko dituzte, eta horietako 350 estaliko dira



Lanak amaitu ondoren, Askondo inguruak izango duen itxura ikusi daiteke irudian.

IURRETA Aitziber Basauri
Hasi dira dagoeneko Askondo kalearen itxura guztiz aldatuko duten herri lanak. Guztira, 850 metro koadro berriztatuko dituzte, eta horietako 350 estali egingo dituzte. Martxora arte iraungo duten lan horiek 480.000 euroko inbertsioa eskatuko diote Iurretako Udalari.

Obra zibila joan zen astean hasi zen, eta urtarrilaren amaieran aurreikusi dute bost metroko altuera izango duen estalkia jartzea —30 metro luzeran eta 12 zabaleran—. Halaxe azaldu du

Iñaki Totorikaguena alkateak. Gaineratu duenez, “ekitaldi edo momentu jakin batzuetan,

Askondon hasi berri diren lan horiek 480.000 euroko inbertsioa eskatuko diote Iurretako Udalari

alboetatik ere estaltzeko aukera egongo da”.

Askondon egokituko duten gune horretan ur-zurrustak

egongo dira, udarako edo bero egiten duen egunetarako, eta Dantzari auzuneko etxebizitzaren horma batean eskalada-horma “txiki” bat jarriko dute, “umeek jolasteko”, argitu dutenez.

Totorikaguenak azaldu du “leku zabala” lortzea izan dela helburua, eta “hori baldintzatu ez duten altzariak” aukeratu dituztela. Hartara, desmuntatu daitezkeen hiri-altzari mistoak jarriko dituzte aldi berean, xake edo partxis moduko jokoak dituztenak, eta lurtean joko tradizionalak margotuko dituzte.

Ametxorbeko lurren auzian, udalak galdu egin du epaiketa

GARAI M.O.

Berrizko Biritxinaga nekazari familiak Ametxorbe inguruko lur bat erosi zuen 2014an. Garaigaz muga egiten du lurrak, eta hori ikusita, udalak bereganatzeko asmoa agertu zuen; aukera hori ematen du legeak erabilera publikorako denean. Baina, gaia epaitegietara heldu zen, eta orain, nekazari berriztarrei eman die arrazoia epaileak, lurrak bereganatzeko epea pasatuta zegoela argudiatuta.

Biritxinagatarrek behi usiategi handia dute, eta horixe zabaltzeko asmoz erosi zuten lurra. Euren jo zuten jabearengana; lurra ez zegoen salgai ordura arte.

Nekazari berriztarrei eman die arrazoia epaileak, lurrak bereganatzeko epea pasata zegoela argudiatuta

Horren berri eduki eta gero, Garaiko Udalak osoko bilkuran erabaki zuen erosketa atzera botatzeko eskaera egitea. Ametxorbe inguruko lurrak herriko nekazariarentzat erabiltzea zen gobernu taldearen asmoa.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSE-EE



Beldurrak badu generoa

Herri ederra da Durango, oso harro eta maiteminduta nago hartaz, baina badu zer hobetu, eta nahitaez egin behar da. Emakumea naizen aldetik, premiazko arazoaren artean, ezatseginak diren edo ondo argiztatuta ez dauden aldeak aipatu behar ditut, babesgabatasuna eragiten dutelako. Emakumeok, sexu-erasorik gehien xede garenok, beldurrez ibiltzen gara.

Emakundek oraintsu argitaratu duen azterketak aurrez genekiena egiaztatu du: beldurrak baduela generoa. Emakumeontzat espazio publikoa leku babesgabea dela eta segurtasunik ez duela. Horrek ondorio emozional txarrak ditu, eta gure askatasuna mugatzen du ia egunero. Egunero sentitzen dugun beldur hori genero indarkeria mota bat da berez.

Hala ere, laguntza eman dezakegu mota honetako indarkeria gutxitzeko, azaroaren 11n, 18:00etatik 21:00etara, behaketa egiteko egingo den ibilaldian parte hartuta. Gure ibilbideetan dauden puntu beltzak markatu behar ditugu, gero konponbideak proposatzeko.

Gainera, hirigintzako planigintzaren bidez arriskutsuak izan daitezkeen espazioak saihestu ahal ditugu, kontzientziariokan kanpainak bultzatu jazarpenaren eta sexu-erasoen kontra, estrategiak zabaltzeko, preskakuntza eman harremantand dauden mugei buruz eta ahaldundu autodefentsako ikastaroak eginez. Ildo horretatik, zabalik dago epea 12 eta 20 urte arteko gazteentzako autodefentsako ikastaroan izena emateko, Andragunean. Eman diezaiozun bukaera beldurrari.

DURANGALDEA ASTEON

Auzolanerako deia dute Arrazolan, biharko

ATXONDO > Arrazolako eskola zaharrea taberna bat eta denda bat zabaltzeko erakina egokitze lanetan dabiltza arrazolatarrak, azken asteotan. Biharko, azaroaren 12an, ere jardungo dira elkarlanean. Joan zen asteburuan, dozena bat lagunek erantzun zioten Atxondoko Udalak auzolanerako egindako deialdiari.

Castet elkartean 24. urteurrenko jaiak

ZALDIBAR > Castet Elkartek 24 urte bete dituela ospatzeko jaiak egingo dute biharko. 10:00etan Santamañezarrera irteera abiatuko dute, eta bazkari herrikoian elkartuko dira, ondoren, Castet tabernan. Bazkalostean Txapito Guzman eta Ibarako Langostiniek taldearen musika, bertsopoteoa eta DJak izango dira.

Zaintzaileentzako ikastaroa, martxan

DURANGO > Amankomunazgoak eta Durangoko Udalak zaintzaileei zuzenduta garatzen duten Zaindu programaren barruan, jokabide nahasketei aurre egiteko ikastaroa hasi dute, asteon, Pinondo etxean. Azaroan eta abenduan izango dira saioak, eta 94 603 00 46 telefono zenbakian eman ahal da izena.

Gora zuek!

Badira hiru aste jaiak bukatu zirela eta txosna batzordeko kideok jada egin dugu jaien balorazioa: egitaraua, herritarren parte hartzea, erasoaren aurkako protokoloa, diru kontuak, etab. Ez da lan makala izan! Gainera, uste dugu garrantzitsua dela gogoratzea azken honekin, lortutako irabaziekin, herri mugimendua hauspotzen dugula urtez urte, eta ez gure poltsikoak. Izan ere, bagara izaera desberdinetako hamalau eragile eta beraz, txosnagunean ahalik eta jende anitzena batzea dugu helburu, eta uste dugu lortu dugula. [...] Aipatzekoak dira txosnagunean izandako eraso sexistak, eta honen aurrean, txosna batzordeak gertakari hauek salatzen jarraituko du, erasorik gabeko txosnagune parekide bat lortu arte. [...] Gainera, aurtengo martxan jarriz gauero. Aurtengo jaiak bereziki luzeak izan dira, eta honek gastu ekonomikoaren gorakada eragin du, baita lanean ibili garenon denbora zein esfortzua areagotzea ere. Dena dela, udalaren al-

detik ez da ezer aldatu, eta, hortaz, bere horretan jarraitu du, beraien interesei men egiten dien egitarauaren gehiegizko inbertsioak areagotuz eta herri mugimenduari laguntzarik murrizten eskainiz; udalak antolatutako jaiegun erdiaren egitarauaren kostua txosnaguneko egitarau osoaren kostu berbera izanik. Horrekin batera, beste urtebete pasatu da, eta oraindik Durangoko txosnaguneak ez du leku finkorik, ez eta udalarekin batera hasi beharreko negoziazioaren berririk. Bukatzeko, eskertzekoa da auzokideek gurekin izandako tratua, udaletxera egindako joan-etorri guztietan teknikariek izandako atzeturia, egunez zein gauez ardurak, zaintzak, barrako turnoak, brigada feministetan, egitaraua osatzen, elektrizitatearekin laguntzen, txosnagune muntatzen eta desmuntatzen, mahaia eta aulkiak jartzen eta jasotzen... [...] Zuen lanagatik lortu dugu, beste urtebetez, jaiak herritik eta herriarentzat antolatzea. GORA ZUEK!

Edurte Landaluze eta Anes Baños, Durangoko txosnagunearen izenean

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia


DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.



Kepa Azarloza | Derandain Fundazioko presidentea | Zornotza, 1939



Derandain Fundazioa

“Kontzientzia hartu, eta gobernuak laguntzera bultzatu behar ditu gizarteak”

Zornotzan sortutako Derandain Fundazioak hamarkada beteko du Afrikara laguntza bideratzen

> BERBAZ Aitziber Basauri
Hamarkada bete du Zornotzan sortutako Derandain Fundazioak. Erakunde honek Santurtzin du egoitza nagusia, eta Etiopian, Kenyan eta Tanzanian garatzen ditu egitasmoak. Pro-Afrika taldeko kide ere bada. Ekainean Derandain astea antolatu gura dute Zornotzan.

Derandain Fundazioak hamarkada bete du dagoeneko. Atzera begiratu eginez, nola ikusten da egindako bidea? Lanean hasi ginela hamarkada bete da, bai, baina fundazioa 2007an osatu zen. Jokin semeak Afrikara egindako bidaia batetik sortu zen. Urte sabbatikoa hartu zuen, eta Tanzania, Ruanda, Uganda, Etiopia eta Kenian ibili zen, bizikletan. Hainbat misio eta ikastetxe ezagutu zituen han. Hango misiolariekin harremana izan, eta bueltan laguntza bideratzeko proposamena egin zigun.

Urte hauetan guztietan hazten joan da proiektua? Mundu logistikoari lotutako enpresa talde batek finantzatu-

tako fundazioa sortu genuen. Hasieran, dirua bideratzen zen. Etiopian, Kenyan eta Tanzanian kokatutako fundazio batzuetara bideratzen genuen. Ondoren, apurka-apurka, soldatapeko lan-taldea osatu genuen, eta boluntarioen lankidetzari esker hazten joan gara. Hartara, talde tekniko batez egitasmoak lantzen hasi ginen, eta horretan jarraitzen dugu. Oinarrian, elikadura, ikastetxeak eta osasun arretagaz lotutako proiektuak dira. Hala ere, basolanetan eta errefuxiatuekin ere lan egiten dugu. Erakunde publiko eta pribatuak zein norbanakoek emandako dirua ere bidaltzen dugu.

Hango tokiko erakundeekin egiten duzue lan?

Bai. Gainera, bertan lanean ari diren gero eta erakunde gehiagorekin lan egiten dugu. Sekulako pobrezia bizi duten inguruetan dabilzan erakundeak dira. Wukron (Etiopia) hasi ginen. Angel Olaran misiolariagaz batera egiten dugu lan bertan —20 urtetik gora daramatza berak lanean, umezurtzei etxea eta hezkuntza, eta gaz-

teei lanbide heziketa eskaintzen; basoberritze lanak ere egiten dira—. Nairobin (Kenia), berriz, moja kongregazio batez ari gara lankidetzan. Laini Saba eskola kudeatzen dute bertan, eta sekulako pobrezian bizi diren umeen oinarritzko premiak asetzen dituzte —hezkuntza duin eta segurua ez eze, egunero jatekoa ematen zaie—. Tanzanian, Mwe-

“Gura izan genuen guztia eta gehiago hartu genuen, eta zerbait bueltatu beharko genieke”

“Mendi martxa, solasaldiak eta bazkaria antolatu gura ditugu, besteren artean”

ma Clindren GKEagaz gaude hartu-emanen, Karatuko kaletan bizi eta lan egiten duten adin txikikoen eskubideak aldarrikatzeko. Orain dela gutxi moja indiar batzuekin ere hasi gara lanean Turkanan (Kenia), eta Jeusiten errefuxiatuen zentroagaz ere kolaboratzen dugu.

Errefuxiatuen gatazkak irudi latza agertu du

Itzela da. Gosea, sikateak, bizi-baldintzak, gerrek sortutako baldintzak Afrikan itzelak dira, eta lotsagarria da. Kolonizazio garaian Europak berarentzat hartu zuen dena: Alemaniak, Frantziak, Ingalaterrak, Belgikak, Holandak, Espainiak eta Portugalek gura izan genuen guztia eta gehiago hartu genuen, eta zerbait bueltatu beharko genieke. Baina, hori zientzia fikzioa da; arazoa itzela da.

Derandainek finantziario sare zabalagaz egiten du lan?

Derandainen patronatuan familia gaude eta, lan talde tekniko izugarri bat izateaz gainera, geuk bultzatzen dugu fundazioa. Laguntzen diguten en-

presek gastu arrunta estaltzen dute, eta Afrikara bideratzen dugun dirua administratuztik —udalak, aldundiak eta Jaur-larritza— dator, batez ere. Bestelako fundazio pribatu batzuen bitartez ere bidaltzen da dirua.

Herritarren erantzuna, nola-koa da?

Oro har denok gaude ados egindako lanagaz. Hala ere, ekarpen ekonomikoak ez datoz bat horregaz. Egia da jende asko dagoela, ez bati, hainbat GKeri ematen diona dirua. Hala ere, uste dugu eraginkorragoa dela gizarteak administrazioan presio handiagoa egitea, garapenera diru gehiago bideratu dadin. Oso garrantzitsua da sentsibilizazioa, eta horretan lan egiten dugu. Izan ere, gizartearen aldetik indar gehiago egingo balitz, administrazioak gehiago lagunduko lituzke proiektuok. Kontzientzia hartu, eta gobernuak laguntzera bultzatu behar ditu gizarteak.

Ekainerako aste berezia prestatzen ari zarete?

Bai. Mendi martxa, solasaldiak eta bazkaria antolatu gura ditugu, besteren artean.

Derandainek lotura zuzena du Zornotzagaz, ezta?

Bertako auzoa da. Amaren familia-baserrira dago han, eta gu ere errefuxiatu lez Frantziatik bueltatzean, han bizi izan ginen. Gero kalera etorri ginen.

Eduardo Momeñe (Bilbo, 1952) | Argazkilaria |

“Obra baten zentzua ulertzen lagundu behar luke kritikariak”

Argazki kritikaren balioa aldarrikatuko du Momeñek, bihar, Begira jaialdian



> ARGAZKIGINTZA I. Esteban Begira Photo jaialdiko berbaldietako bat eskainiko du Eduardo Momeñek, azaroaren 12an, 17:00etan, Durangon. Argazki kritikari buruz arituko da, eta bertaratzen direnak solasaldian parte hartzea gonbidatuko ditu.

Ezaguna zenuen Begira?

Bai, tailer bat ematera gonbidatu ninduen Leo Simoesek duela urte batzuk. Asko gozatu nuen, eta uste dut tailerrera etorri zirenek ere disfrutatut zutela.

Zer funtzio daukate, zure ustez, Begira moduko jaialdiek irudien “saturazio” sasoiotan? Kontzeptuak argitu eta motibatzea, zalantzarik barik. Hain popularra izan arren, arlo konplexu eta ezezaguna ere bada argazkilaritza. Horregatik, be-
rau ezagutzera emateko antola-

tutako ekimen guztiak aproposak direla uste dut.

Kritika fotografikoa izango da zure berbaldiaren ardatza. Zein da egungo egoera?

Nire ustez, argazki “kritika” ez litzateke obra bat ona edo txarra den epaitzen duen testu bat izan behar, obraren osagaiak ezagutaraziz ikuslearen begirada aberasten duen iritzia baizik. Obra baten zentzua hobeto ulertzen lagundu behar luke kritikariak. Velazquezen obrari buruzko liburu bat irakurtzean ulertzen dugu ideia hori ondo: kontua ez da Velázquez margolari ona edo txarra zen esatea, bere margogintzan barneratzeko gakoak ematea baizik. Hori da ideia, argazkietan zorroztasunez barneratzea.

Kritika mota hori hemen ez dela existitzen diozu. Badau- de eredugarri iruditzen zaiz- kizun bestelako errealitateak?

Bai, herrialde anglosaxoietan argazki kritika bikaina daukate, esaterako, eta Europan, orokorrean, bibliografia landua. Herrialde horietan argazkigintza “serio” hartu izan dute ha-

sieratik. Hemen, aldiz, zinema-
gaz, literaturagaz eta artegaz konparatuta, ez daukagu kritika tradizioirik. Edozelan ere, estetika eta lengoaiaren arloan gauza interesgarriak egiten dabilzan hainbat autore daukagu, eta baita argazkigintzaren inguruko hausnarketa sakonak egiten dabilzanak ere.

Zergatik uste duzu ez dela argazki kritika hori garatu?

Argazki kamera oroitzapen ederrak gordetzeko balio duen “jostailua” izan da sortu zenetik, asmakizun familiar eta bereziki burgesa, asteburuko zaletasun polit bat... Abiapuntu horretatik adierazpenerako eta sorkuntzarako pausoa ematea ez da bi eguneko kontua. Argazkigintzarekiko ezagutza eza, eta, aldi berean, argazkiak egiteko erraztasuna dira, nire ustez, argazkigintzaren egungo oztopo nagusiak.

Zer darabilzu eskuartean?

Nire argazki, bideo, erakusketa eta liburuekin jarraitzen dut. Hainbeste urteren ostean, gustuko dut oraindik, eta zorioneko sentitzen naiz.

Imanol Marrodán artistaren ‘Frozen trees’ argazki erakusketa ikusteko azken egunak

Anboto mendiko arbolei neguko egunetan egindako argazkiek osatzen dute ‘Frozen trees’ erakusketa

Begira Photo jaialdiaren barruan, Durangotik kanpo antolatutako lehenengo erakusketa izan da Imanol Marrodán argazkilaria bilbotarrarena. Zornotzako Zelaietan dago *Frozen trees*, domekara arte.

Anboto izeneko proiektuko 28 argazkiko serie bat da Zornotzan ikusgai dagoena; aurtengo Begira Photo jaialdiaren gaia *Basoa* izanik, zuhaitzak protagonista dituen. Huescan, Madrilen eta Kanarietan

erakutsi eta gero, “ilusio berezia neukan argazki hauek Anboto inguruko lekuetan bizi direnei erakusteko”, azpimarratu du Marrodanek.

“Gaztea nintzenetik joan naiz eskalatzera Atxartera, eta naturagazko harremanak beti izan du eragina arte garaikideko nire jardunean”, kontatu du artistak. Anbotoren ezagunak ezezagunenei argazkiak egiteko asmoagaz ekin zion proiektu artistiko honi, eta muturreko egoeretan egin zituen argazkiak Anboton.

Bat kenduta, zuri beltzeko argazkiak dira erakusketako beste argazki guztiak, ikatz tintagaz inprimaturikoak. Egilearen berbetan, teknika horrek “tonu gris eta zuriei aberastun handia ematen die”.

“Artista askorentzat elementu inspiragarria” izan delako, Japoniako Fuji mendiagaz alderatzen du Marrodanek


Anboto: “Mari, euskal mitologiako amalurraren errepresentazioa bertan bizi delako da mendi enblematikoa”, dio artista deustuarrak, eta bere itxura “piramidal” horretan, “arketipikoa” ere bai. Mendi enblematiko eta arketipiko horri ikuspuntu berdinetik egin zizkion argazkiak, baina urtaroen argi desberdinagaz. Margolari inpresionistek bezala, baina argazkigintzatik jardun da.

Proiektua gauzatzen ibili den bost urteotan une magikoak bizi izan dituela kontatu du argazkilariak: “Gauak bertan harrapatu nau hainbat aldiz, jendea ere ezagutu dut...”. Iazko errege bezperan, esaterako, Anbotora igo eta bere liburu opari utzi zuen, goizean norbaitek topatu zezan.

Proiektuaren webgunea (www.anboto.airplace.org), *Frozen trees* erakusketa eta Marrodanen argazkiak eta Juanjo San Sebastian mendizalearen testuak biltzen dituen *Anboto* liburua dira bost urteko lanaren emaitzak. Egilearen berbetan, “arte garaikideko lan bat eta liburu dibulgatzaile bat da, aldi berean”, argitalpen hori.

“Ilusio berezia egin dit argazkiak hemen erakustek”

IMANOL MARRODÁN



Marrodanek ez du Anboto proiektua amaitutzat jo. Argazkilaritzara mugatu barik, Oteiza Fundazioan arte garaikideagaz loturiko proiektu bat gauzatuko du, Anbotogaz, Oteizaren desokupazioaren ideiagaz, elurragaz eta izotzagaz zerikusia duena.

“Ez naiz argazkilaria. Ditudan tresnak nire beharrezan arabera darabilzkit: lengoia desberdinak uztartzen ditut, artearen bidez nire jarrera politikoa hartzeko”, dio artistak.



Erakusketako argazkietako bat.

Biolin kontzertu bategaz hasiko dute Musika Hamabostaldia

Ana Maria Valderrama biolinista gazteak joko du, bihar, San Frantzisko elizan



> MUSIKA Itsaso Esteban
Ana Maria Valderrama biolinista gaztearen emanaldiagaz hasiko da XXVII. Musika Hamabostaldia, eta azaroan eta abenduaren goi mailako musikarien beste bi emanaldi ere ekarriko ditu Durangora. Luis del Valle pianistak lagunduta arituko da, bihar, San Frantzisko elizan, 2011n Pablo Sarasate biolin lehiaketan saria jaso zuen Valderrama musikari madrildarra. Sarasateren obrak interpretatzea da Valderramaren espezialitatea, eta beraz, autore horrenak izango dira biharko kontzertuko errepertorioan protagonismo handiena izango dutenak. Baina Chopin, Schubert edota Brahms-en obrak ere eskainiko dituzte Durangon.

Enrique Solinis gitarristen eta Euskal Barrokensamble taldearen *Hego koloreak* ikuskizunaren emanaldia izango da zikloaren barruko bigarrena. Azaroaren 19an, 20:00etan, San Agustinen eskainiko dute.

Arandoño elkartearen eskutik, formatu handiko kontzertu bategaz amaituko da 2016ko Musika Hamabostaldia: Bilboko Orkestra Sinfonikoaren eta Aarón Ribas organistaren emanaldiagaz, hain zuzen ere. Hydn, Liszt eta Widoren obrak interpretatuko dituzte abenduaren 17an, 20:15ean, Andra Marian.

Antolatzaileen berbetan, Hamabostaldiaren kalitatearen eta dibulgazioaren arteko orekaren adibide da aurten hiru proposamen dakartzen programazioa.

Maria Moliner lehiaketan saria jaso du Elorrioko liburutegiak

> SARIA Itsaso Esteban
Espainiako Kultura ministerioak literaturzaletasuna bultzatzeko helburuagaz antolatzen duen Maria Moliner lehiaketan saria jaso du Elorrioko liburutegiak, bosgarren urtez jarraian.

Herriko familiek liburutegiko ekintzetan parte hartzea sustatzeko asmoz gauzatu duten *Biblioteca family search*. *Biblioteca familiar/Historia familiar* programa aurkeztu du Elorrioko liburutegiak lehiaketara, aurten, eta liburu sorta bategaz saritu dute.

50.000 biztanle baino gutxiagoko herrietako liburutegi publikoei zuzenduriko lehiaketa da Maria Moliner, eta 300 liburutegiren lana saritu dute aurten ere.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Euskaltzalea



Ibilbideak

Luismarik ez daki ze egun den, urtaroaren izena ere ahaztu zaio. Baina badaki argitasuna gainbehera hasten denean, arropa gehiago jantzi behar duela. Osteratxoan egiten du egunero ordu berean, leku beretik; errekonkoda du gustuko. Eta unibertso jainkoaren showa mailarik gorenean dagoela, han doa bera, begiak ur-emariari josita, Mañaritik behera errekek dakarrenari. Haize ufadak astindua eman die errekonkoko zuhaitzei eta hosto ahulak, etsita, ur kulunkarian pausatu dira, zurrubiloan sartu-irten, eta atzera nabigatzera... Bistatik galdu arte egon da LuisMari, geldi, haie so hipnotizatuta.

Aspalditxoan, ibilbideak nahinon ditugu aipagai, egingarri, ikusgarri... Ugaritzen ari zaizkigu sorkuntzari, ondareari eta naturari lotutakoak, batez ere. Egundoko baliabidea kulturarekiko jakin-mina piztu eta asebetetzeko, jantziago egoteko. Zenbat eta ibilbide gehiago egin, orduan eta pozago. Izan ere, antolatzailleek, gehienetan, detaile guztiak ondo zainduta izaten dituzte interesatuok bidean bizitakoaz goza dezagun. Iragan eta orain parean, bide-lagunak ere parean, parekoa beste hainbat ekintza gozagarrietan ibilitako bera...

Luismarik ez du sekula horrelakoetan parte hartu. Ibilbide-orri bakarria du, letra txikiz eta labur idatzita dator, joan-etorria leku beretik, errekonkdotik. Ur biziaren zurrumurrua nahikoa du zortedun sentitzeko, ez baitaki zeri esaten zaion artea, historia, literatura... Pinondoko zubian geldialdia egin duen taldera bartzeko esan diote, eskerrak eman eta paiten dantza artistikoei begira gelditu da, liluratuta.

> BERTSOLARITZA J.D. / I.E.

Joan zen zapatuan Zaldibarren jokatu zen azken kanporaketako emaitzen ostean, erabakita dago Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalurrekoetan parte hartuko duten 18 bertsolariak nortzuk izango diren. Horietariko bost Durangaldeko bertsolariak dira: lehen hiru kanporaketak irabazita, zuzenean sailkatuta zeuden Miren Amuriza berriztarrari, Eneko Abasolo *Abarkas* iurretarrari eta Beñat Ugartetxea mallabitarrari, Txaber Altube eta Aitor Bizkarra abadiñarrak ere batu zaizkie, kanporaketetan lortu dituzten puntuei esker.

Lehenengo finalerdia Markinan izango da, azaroaren 19an. Eneko Abasolo *Abarkas* eta Txaber Altube saio horretan arituko dira, Jone Uria, Joseba Barandiaran, Nerea Ibarzabal eta Oihana Bartragaz batera.

Aitor Bizkarrak eta Beñat Ugartetxeak bigarren finalerdian kantatuko dute, azaroaren

Durangaldeko bost bertsolari arituko dira finalurreko saioetan

Bizkaiko Bertsolari Txapelketan aurrera darraite eskualdeko 5 bertsolarik

27an Basaurin egingo duten saioan; eta Miren Amuriza Larrazetako finalurrekoan jardungo da, abenduaren 3an.

Nerea Ibarzabal markinarak irabazi zuen azaroaren 5ean Zaldibarren egin zuten azken kanporaketa, eta Beñat

Romero zornotzarra izan zen saio hartan kantatu zuen Durangaldeko bertsolari bakarra. Seigarren sailkatu zen.



Azken kanporaketa entzuteko, Zaldibarko Olazar frontoia bete egin zuten bertsozaleek. Lehior Elorriaga

Alarde de danzas
Ant.: Centro Andaluz
Azaroaren 12an, 19:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

Dudas razonables
Banarte Antzerki Taldea (Abadiño)
Azaroaren 13an, 19:00etan

San Agustín KULTUR GINEA

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

www.plateruena.eus

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

hitzari gorazarre'

AZAROAK 11
22:00etan
BERTSO TRAMA
BERTSOLARITZA

parte hartu

torri hitz eg

AZAROAK 17
10:00etan
MINTZODROMOA
BERBALDIA

AZAROAK 18
21:30etan
PUB QUIZ
LEHIAKETA

LAISTER ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK ERAIKIKO DIRA



Montevideo Etorbidea · 48200 Durango **Koordenadak: 43.169620, -2.631006**

INFORMAZIO GEHIAGO

946 46 20 41
www.sukia.com



Estás en tu casa.
Zure etxean zaude.

BBVA-ren
finantzaketarekin

> MUSIKA Aimar Esteban

2014an sortu zen Kohatu talde berriztarra. Beste talde batzuetan jotzen zuten lagunak batzea erabaki zuten, eta musika egiten jarraitzeko grinak bultzatuta, lanean ibili dira beraien lehenengo maketa kalean ikusi arte.

Hasieran boskotea ziren arren, 2015eko irailetik aurrera laukotea dira Kohatu: Joseba Romero (gitarra eta ahotsak), Bingen Baños (gitarra), Martin Sarasketa (bateria) eta Xabier Gutierrez (baxua).

Talde honek etiketatzea gus-tuko ez duen arren, heavy-metalaren eragina nabaritzen zaie. “Taldekide bakoitza mundu bat da, eta bakoitzak bere taldeak ditu gogoko. Horien nahas-keta bat izango litzateke gurea”, azaldu dute. Horien artean, Pan-tera, Metallica, Kuraia edo Iron Maiden aipatu dituzte.

Kohaturen ibilbidea hasi bes-terik egin ez den arren, hainbat kontzertu eman dituzte gazte-txe, taberna edo jaietan. Talde honen kontzertuetan, gitarra doinu astunak, bateria doinu arinak, baxu potenteak eta melodia landuak daude.

Maketa bat grabatzea gura zuten hasiera batetik. “Taldea sortu genuenetik, geure abesti propioak sortu eta grabatu gura genituen, gure abestiak ezagu-

Kohatu: “Gure abestiak sortu eta grabatu gura genituen”

Berrizko taldeak bost abesti dituen lehen maketa kaleratu berri du



Kohatu taldeko kideek abuztuan grabatu zuten maketa, Igorren eta Berrizen.

tzera ematea gura genuen”, aitortu dute. Maketa atera izanak “abestiak bildu eta zabaltzeko aukera” suposatzen du talde berriztarrarentzat. Grabazioaren ideia Otxandion jo zuten kontzertu batean jarri zen martxan, Durangaldeko maketa lehiaketa irabazi zuten Desore taldekoe-

kin elkartu zirenean. “Egun horretan, barre artean galdetu genien ea posible izango zuten gure maketa grabatzea, eta, abuztuan, bi astez izan ginen grabatzen, Igorren eta Berrizen”.

Astiro egindako lana dela dio-te. Landu eta zaindutako maketa

honetan, “bost abestietan estilo ezberdinak nahastu ditugu, maketa norabide bakarrekoea ez izatea gura genuen, denetarik egotea”, adierazi dute.

Maketa emailez eskatu ahal da, kohatumetal@gmail.com helbide elektronikora idatziz. Berrizko Guzur eta Ganeko-E-txe tabernetan, eta Durangoko Izki tabernan ere badago salgai. Durangaldeko beste leku batzuetan ere saltzea espero dute. Galdakaoko Garagarza Tattoo-n zein beraien kontzertuetan ere izango dute salgai maketa.

Talde berriztarrak Durangoko Azokan hitzordua dauka aurten. Ahotsenean joko dute, abenduaren 2an, 14:20an. Azokakoea ez da azkena izango, kontzertu gehiago lotzen ari dira-eta Durangaldean, eta musikaz gozatzen jarraitu gura dute. “Motibatuta gaude jotzen jarraitzeko, eta, posible balitz, urtebete edo urte bi barru CDa grabatzeko”. Kaleratu berri duten maketa honen bidez euren musika eza-gutzera ematea gura dute.

Musikaldiari ekiteko, ‘Ez Dok Amairu’-ren kantak, Iurretan

> MUSIKA I.E.

Azaroaren 13an hasiko da hiru emanaldi dakartzen Iurretako Musikaldia zikloa. Eibarko Sostoa abesbatzak eskainiko du jaialdiko lehenengo kontzertua, 12:45ean, Aita San Migel elizan: Ez Dok Amairu mugimenduko artisten kantak eskainiko dituzte.

Musikazaleentzat beste hitzordu bi ere badakartza Iurretako jaialdi honek. Josu Bergara Eako kantautorea izango da azaroaren 19ko kontzertuko protagonista. *Kanta txikien indarra* diskoa aurkeztuko du Bergarak, azaroaren 19an, 19:00etan, Iurretako Ibarretxe kultur etxean.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko kontzertu didaktiko batez amaituko dute Iurretako Musikaldia, azaroaren 28an. *Las guitarras que nos envuelven* ikuskizuna eskainiko diete gazte iurretarrei, azaroaren 28an goizean egingo dituzten bi saioetan. Gitarra elektrikoaren historiaz jardungo dira.

Decopivolta Teatre antzerki taldeak ‘Tulipas’ antzezlanak aurkeztuko du

‘La noche boluda’ antzerki zikloaren kurtsoko bigarren saioa egingo dute

> ANTZERKIA Aimar Esteban

La noche boluda antzerki eta zirku emanaldien zikloak kurtsoko honetako bere bigarren antzezlanak izango du egunean, Sapuetxe gaztetxean. Oraingo honetan, Decopivolta Teatre talde valentziarra egingo da es-

zenatokian, *Tulipas* antzezlanak aurkeztzen.

Cecilia Paganini clown-ak eskainitako antzerki zikloaren barruan, emanaldi bat egingo dute Sapuetxen, hilean behin. “Gaztetxea berriztatu ostean, eszenatokia ikusi eta Sapuetxe-

ko asanbladari *La noche boluda* bertan aurkezteko ideia planteatu nien”, azaldu du antzezle argentinarrak.

Antzerkia formatu txiki batean formulatuz, publikoaren gaurko hurbiltasuna bilatzen dute. Giro honetan, pintxoak eta edaria ere eskainiko dituzte. “Pintxo-potearen alternatiba bat izateko aukeratu genuen egunen egitea”, aitortu du Paganinik. Antzezlanetik hara-tago, hurbilagoa izan dadin, antzezleekin hitz egiteko aukera egongo da, bai ikuskizuna hasi aurretik, bai amaitu ostean. Sarreraren prezioa hiru eurokoa izango da.

Aurreko hilean hasi zuten kurtsoko berria, kabareta egin- ez. Hurrengo hilerako, Maite Guevara bilbotarra egingo da *Soltarlo al aire* lanarekin, eta ur-tarrilean, Badut talde donostiar-rak *Zirriborro* aurkeztuko du. Ekainerako kabareta egin gura dute, “artista berriek beraien ikuskizun eta proiektu txikiak erakutsi ahal izateko”.

‘Heroiaren bidaiak’ filmak irabazi du 24 Ordu Digitalean

> FILM LABURRAK I.Esteban

Hamalau taldek parte hartu zuten asteburuan Elorrioko Arriolan egin zuten 24 Ordu Digitalean lehiaketan. Bur-gundi taldearen *Heroiaren bi-daiak* filmak jaso zuen 700 euroko lehenengo saria. Nagusiaz gain, beste bi sari ere banatu zituzten: Berta Prods-en *Corazón contento* eta AGM taldearen *La-banen dantza* lanek 500na euro jaso dituzte finalista izate-gatik. Bestalde, Txoriak Pro-ductions taldeak publikoaren saria jaso du *SorPresak* lanagaz, eta Arriolako emanaldietara-ko sarrerak jaso ditu sari gisa.

Lehiaketaren antolatzaileek emandako *bizipoza* gaia- ren inguruan, 24 orduan film labur bat grabatzea izan dute erronka Elorrioko lehiaketa-ko partaideek. Euren lanetan *Gazteak baleki, zaharrak bale-za* esaldia eta maleta bat ager- tzea ere izan dira zinegileek be- te beharreko beste bi baldintza. Lehiaketara aurkezturiko film labur guztiak Interneten ipini dituzte ikusgai.

Azokako lehen egunean, helduentzako hainbat tailer

> AZOKA I.E.

Abenduaren 2an, Durangoko 51. Azokak ateak zabaltzen dituen egunean, Ikasleen Egu- nean, euskara ikasten dabil- tzan helduei hainbat tailer eskainiko dizkiete, aurten, lehenengoz. Bikoizketa edota hip-hop tailerrek antolatu di- tuzte, besteak beste.

Bikoizketa eta hip-hop tailerretan parte hartzeko aukera eskainiko diete helduei, Ikasleen Egunean



‘La noche boluda’ zikloaren antzezlanak Sapuetxe gaztetxean egingo dituzte.

Wikipedia maratona eta ira- kurketa taldeentzako bisita gi- datuak ere antolatuko dituzte Durangoko Azokari ekiteko.

Parte hartu gura dutenek azaroaren 15a baino lehen eman behar dituzte beraien izen-abizenak, helbidea, tele- fono zenbakia, e-posta eta tal- dearen ikasle kopurua, helbide honetara idatzita: ikasleak@durangokozoka.eus.

Maidar Unda | Borroka libre utzi du | Oleta, Aramaio 1977

“Orain, borroka ez da nire lehentasuna”

Hamarkada bitan borroka libreko erreferentea izan ostean, Maidar Undak amaiera ipini dio bere kirol ibilbideari



Goiena

> GOIENA Xabier Urzelai
Erabakia aspaldi hartua bazuen ere, Maidar Undari kosta egin zaio kazetarien aurrean asmoak azaltzea. Urte asko izan dira borroka libre ordezkatzen, Europako eta munduko txapelketetan eta Olinpiar Jokoetan parte hartzen, baina nahikoa dela esan du, beste lehentasun batzuk ditu.

Lasaitua hartu duzula esan duzu prentsaurrekoan. Zer sentitzen duzu?

Erabateko lasaitasuna. Bane-
kien momentu zaila izango zela, trantze hori pasatu beharko nuela, eta egin dugu. Orain, borroka ez da nire lehentasuna.

Zer geratzen da 9 urterekin borroka libre jolas moduan hartu zuen neska hartatik?

Seguruenik, ilusioa. Bizitzan aurrera egiteko ilusioa behar da, eta egia da borroka librean jarduteko ilusioa amatatu egin zaidala, baina gaztetxoekin lanean hasteko ilusioa daukat.

Duela 30 urte borroka libre ez zen kirol olinpikoa...

Ez, horregatik diot borroka libre jolasa zela niretako. Eta

“**Emakume moduan borroka librean egindako ibilbideagaz oso harro nago**”

jolasa izatetik ogibide izatera pasa zen. Beti pentsatu izan dut bizitza honetan aurrera egin behar dela, buruak nahikoa dela esan arte, eta, borroka libreaki dagokionez, buruak orain esan dit nahikoa dela, ez dudala maila gorenean jarraitu gura. Gorabehera handiak egon dira urte hauetan guztietan, baina beti esaten dut momentu gogorretan ikasi dudala gehien. Gauzak ondo doazenean jende asko egoten da inguruan, baina momentu gogorretan kapaz izan behar dugu autokritika egiteko, eta ondoan nor duzun ikusteko.

2009an Danimarkan jokutako Munduko Txapelketan lortu zenuen brontzezko domina inflexio puntua izan zen? Inflexio puntua 2007an izan nuen, Beijingko Jokoetarako

txartela lortu nuenean. Erraza zirudien arren, niretako sekulako lorpena izan zen hura, eta ondoren etorri zen Danimarkako domina. Ondorengo urteetan munduko bost borrokalari onenen artean egon ahal izan naiz, eta horrek segurtasun handia ematen zidan, eta, batez ere, kirol honekiko beste perspektiba bat.

Kasu bitxia izan da zurea, borroka librean ia lizentziarik gabeko lurralde batetik etorritako munduko potentzien kontra borrokatu behar izan duzu, milaka eta milaka lizentzia zituzten lurraldeen kontra.

Bai, bitxia da. Hemen borroka libreak ez ditu jarraitzaile asko, oso jende gutxi dabil kirol jarduera horretan, eta beste leku batzuetan borroka lehen mailako kirola da. Eta, hala ere, hor daude lortu ditudan kirol emaitzak. Horrek erakusten du benetan zerbait gura bada, lor daitekeela.

Zure kirol ibilbideko ze momenturekin geratuko zinateke?

Momentu asko ditut gogoan, ez daukat bakarra. Londre-

“**Rioko jokoetan egonda ere ez nukeen kirol bizitza askoz ere gehiago luzatuko**”

sen lortutako domina berezia izan da, baina horrekin baino gehiago, egindako bidearekin geratzen naiz. Bizitako momentu gogorrekin, hartutako erabaki zailekin... Erabaki horiek eraman gaituzte iritsi garen lekuraino.

Riorako sailkatu izan bazina, gehiago luzatuko zenuen kirol ibilbidea?

Ez dakit. Urte hasieran lesionatu egin nintzen, ordura arte sekula izan ez nuen zuntz haustura bat, eta horrek hausnartzera eraman ninduen. Akaso, gorputzari komeni dena baino gehiago ari nintzaion eskatzen. Dena dela, Rion egonda ere ez nukeen kirol bizitza askoz ere gehiago luzatuko.

Rioko Olinpiar Jokoetarako ez sailkatzea kolpe handia

izan zen. Orain, beste lehentasun batzuk dituzula diozu, baina borroka libreko araudian egon diren aldaketek ere ez dizute lagundu.

Gauzak ondo doazenean motibo askorengatik joaten dira ondo, eta gauzak okertzen direnean beste horrenbeste. Egia da ama izatearekin batera lehentasunak aldatu egin zitezakeela, baina maila erre-
kuperatzeko gogor egin nuen lan. Araudi aldaketa etorri zen orduan, nire kategoria berrira moldatzeko pisuz aldatu behar nuen, eta lesioak azaltzen hasi ziren; dena pilatu zen hor.

Urte hauetan guztietan izan duzu dena bertan behera uzteko tentaziorik?

Idea erabat garbi ez. Akaso, momenturen baten lasaiago jarduteko gogoia izan dut, entrenatzen jarraitzeko asmoa, baina, niretako, eta ez horrenbeste txapelketei begira... Halakoak bai, baina erabat uzteko asmorik ez.

Luis Crespok -entrenatzailea- eta biok baduzue harrobiarekin lan egiteko proiektu bat esku artean, baina ez duzue askorik aurreratu.

Oraindik gauza asko ditugulako zehazteke. Asmoa da gaztetxoek borroka libre erakustea, jolas moduan aurkeztea, eta horrenbeste eman didan kirol honi zerbait itzultzea.

Horrenbestez, etorkizunean txapeldun handiak izango direnak entrenatzen hastea duzue buruan...

Bueno, orain arte maila gorenean egonda, ez nuen astirik bestelako kontuetarako. Orain, denbora izango dut, eta horretan hasi gaitzake. Poliki egin gura ditugu gauzak, poliki eta ondo.

Kontziente zara emakumezkoen kirolean erreferente bilakatu zarela?

Orain bai, denborarekin jabetu naiz horretaz. Londresen domina lortu nuenean ametsetan nengoen, baina gero konturatu naiz egindakoaz, emakume moduan borroka librean egin dudana ibilbideaz oso harro nago.

Kirol Merituaren Errege Ordenerako brontzezko domina eman diote Kerejetari

Kirol Merituaren Errege Ordena Espainian kirol arloan ematen den saririk gorena da



Joseba Kerejeta Indonesiara egindako bidaia batean, hango gaztetxoekin inguratuta.

> SARIA J. Derteano Joseba Kerejeta apirilean hil zen, Miamin (AEB), urpeko arrantza praktikatzan zebilela. 47 urte zituen. Urpeko arrantzan txapelketarik garrantzitsuenak

irabazi zituen, baina, lehiak haratago, lan handia egin zuen urpeko arrantza ezagutarazten. Lorpen eta ekarpen hori aintzatesteko Kirol Merituaren Errege Ordenaren brontzezko domina

emango diote. Kirol Kontseilu Gorenaren bidez, Espainiako Gobernuak urtero ematen dituen sariak dira. Sari banaketa azaroaren 15ean egingo dute, Madrilgo Reina Sofia museoa.

Donostiako omenaldia

Bestalde, astean Donostian egiten ari den Urpeko Zinemaren Nazioarteko Zikloan ere gogoratu dute Kerejeta. Gaur izango da. Hector Ripollesek Kerejeta-uren urpekaritza saioekin osatutako *Pescando entre tiburones* dokumentala eskainiko dute, 20:00etan hasita, Principal antzokian.

Kirolaria eta abenturazalea

Joseba Kerejeta urpeko arrantzan goi mailako kirolaria eta erreferentea izan zen. Kirol arloan puntara heldu zen, 2008an, urpeko arrantzako munduko txapelketa irabazi zuenean Margarita Irletan.

Urpeko arrantzaren enbaxadorea ere izan zen. Kirol hori ezagutara emateko hamaika proiektu eta dokumentaletan parte hartu zuen. Horrek munduan zehar bidaiatzeko aukera eman zion, eta toki askotan lorraz ahaztezina utzi zuen.

ADITUAREN TXOKOA

IÑAKI IZA

Pilotari ohia



Pronostikoen garaia

Lau t'erdiko txapelketa azken txanpara iristearrekin batera, urtero legez, binakako txapelketarako pronostikoak egiten hasiak gara pilotazaleok. Ematen duenez, Asegarceren aldetik gauzak argiago daude Asperen aldetik baino.

Azken hilabeteetako partiduei so eginez, Bilboko enpresak nahiko argi erakutsi du zein den bere asmoa. Aurrelarietako dagokienez, Olaizola II, Bengoetxea VI, Urruti-koetxea eta Victor dira partiduko hauetan aukera gehien dutenak. Atzelarietako dagokienez, berriz, Albusu, Untoria, Beroiz eta Larunbe dira torneokoak eta partiduko nagusiak modu jarraian jokatzeko aritu direnak. Betiere, kontuan izan behar da Artolaren eta Aretxabaletaren lesioek enpresarietako lana erraztu dietela. Eibarko enpresak, berriz, ematen du, azken asteetako partiduei erreparatu, aurrean duela buruhaustea. Berez, zalantza izpirik gabe, Irujorena beharko lukeen postua, Elezkano II.ak eta Mendizabal III.ak jokatzeko dihardute. Beste hiru aurrelarietako inguruan ez dago zalantzarik; Irribarriak, Altuna III.ak eta Ezkurdiak ongi lotuta eta ongi irabazita dute titulartasuna. Atzeko koardroetan, ordea, ez da lehiarik espero. Zubietaren lesioa dela eta, laukote titularra Merino II.ak, Zabaletak, Rezustak eta Barriolak osatuko dutela dirudi.

Hasieran esan bezala, hauek guztiak iragarpen hutsak baino ez dira, eta horrekin batera, burura datorren azken bi urteetan enpresek argi utzi digutela edozein iragarpen apurtzeko gai direla.

Bost domina lortu dituzte FexMack-eko kirolariek

> KICKBOXINGA J.D. Aurtengo denboraldian inoiz baino domina eta lorpen gehiago lortu dituzte Abadiñoko FexMack taldeko kirolariek. Klubun arteko Espainiako txapelketa da horren azken abibi-

dea. Ibai Arantzamendik urrezko domina bi irabazi ditu; Alex Hendersonek urrezko eta brontzezko bana, eta Julen Muñozek brontzezko bat. 600 parte-hartzailetatik gora batu zituen Tolodon jokaturako txapelketak.



FexMack taldeko kideak dominekin, Tolodon.

Final-laurdenak hasiko dituzte Olazarren

Azken txanpan da Zaldibarko pilota txapelketa

> PILOTA J.Derteano Zaldibarko Olazar pilota txapelketa azken txanpan sartu da. Hainbat kanporaketen ostean, final-laurdenak hasiko dituzte datorren egunean, 21:30ean hasita. Binaka, P. Labaka eta Martinez, E. Labaka eta Arratibelen kontra arituko dira. Lau t'erdian, Espinalek Egiuren-Aranguren partiduen arteko irabazlea izango du aurkari.

Binaka, Urbieta-Aizpurua, Zubizarreta-Murgiondo eta Errandonea-Olaizola bikoteak final-laurdenetan hasiko dira

lehiatzen, multzoburuak direlako. Hauekin batera, Larrañaga-Perez eta Urretabizkaia-Garmendia bikoteek ere sailkatzea lortu dute. Atzo jokatu zuten zortzikotea osatzeko partidua, eta Igor Azpiri elorriarra izan zen tartean.

P. Labaka-Martinez eta E. Labaka-Arratibel bikoteek finalerdietarako txartela izango dute jokoan

Azaroaren 18an ostirala, 18:30ean

TXOMIN ETA PERU MAGDALENAK
TXOMINTXO ETA PERUTXO MAITEMINDUTA
UMEEN LIBURUA AUKEZTUKO DUTE



hitz artekalea, 23 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

momotxo
t a b e r n a



Plateruen plaza, 12 DURANGO
Tel.: 946 811 006



B A U T I S T A
MUEBLES Y DECORACIÓN



Kanpaina berezia **Egongelak**

% 20 ko deskontua:
Egongelako altzariak, ontzitegiak, sofak eta eroso egoteko altzariak,
mahaia, aulkiak eta osagarriak

Zure erosketa %100 finantzatzen dugu, eta otsailean hasiko zara ordaintzen:
10 kuota, sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe

Proiektua eta aurrekontua konpromisorik gabe
Finantziazioa dohainik

www.bautistamuebles.com

 94 672 77 00

info@bautistamuebles.com

Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)

Fradesek 2017an ere Hawaiiko munduko txapelketa izango du erronka nagusi

“Borrokatu behar dugun helburua horixe dela uste dugu”, azaldu du Iurretako triatletak



Gurutze Frades Hawaiin, munduko Ironman txapelketan.

> IRONMANA Joseba Derteano Gurutze Fradesek (MugarraTT) asteen hasi ditu 2016/17 denboraldiari begirako entrenamenduak. Datorren urtean ere munduko Ironman txapelketa izango du helburu nagusi. Horri begirako egutegia diseinatuko du. Aurtengo sailkapena errepikatzea ez da erraza izango. Erronka gaitzagoa du aurretik. Izan ere, iaz 4.000 puntu zituen sasoi ho-

netan; aurten, aldiz, oso gutxi ditu. Baina buru-belarri saiatzeko prest dago. Eta aurten lortu ezik, 2018an helburu beragatik borrokatuko du, baina denbora gehiagaz: “Aukera bakarraren alde denbora asko hipotekatzea da, baina borrokarako helburua horixe dela uste dugu. Distantzia luzeko triatloietan dagoen hitzordurik inportanteena da, eduki daitekeen helbururik na-

gusiena, eta hortxe egon gura dugu”.

Aurten lehenengoz parte hartu du Hawaiiko (Kona) Ironmaneko munduko txapelketan. Ezin izan du bererik eman. Gorpuzak ez zion erantzun. Baina badaki 33. postuak ez duela bere benetako maila islatzen: “Behin egonda eta probatuta, lasterketa ona egin dezakedala uste dut, 10-15 onenen artean geratu ninte-

keela”. Eta helburu hori buruan duela lan egingo du.

Hawaiitik bueltan aukera bi zituen: berehala puntu batzuk batzen saiatu urte amaiera luzatuz, edo atsedean hartu eta denboraldi berria denboragaz prestatu, udaberriko hitzorduei ahalik eta berme handienagaz aurre egiteko. Bigarren bidea aukeratu du.

Hegoafrikako Ironmana apirilean eta Brasilgoa maiatzean ditu puntuak batzeko hitzordu nagusiak. Proba horietako emaitzek erakutsiko diote bidea: bere ahalegina 2017ra bideratzen jarraitu edo, bestela, aurtengoa alboratu eta abuztutik bertatik 2018rako munduko txapelketara begirako plangintzagaz hasi.

Triatloio txapelketa

Denboraldiko beste hitzordu nagusi bat distantzia luzeko munduko triatloio txapelketa izango da. Aurten ezin izan du parte hartu Hawaiiko proba baino 15 egun lehenago zelako, baina 2017an parte hartu gura du.

Ziklo-kroseko gazterik onenak Zornotzan lehian

Euskal zirkuituko proba lehiatuko dute

> ZIKLO-KROSA J.D.

Amorebieta Txirrindulari Elkartek kadete eta gazte mailako ziklo-kros proba antolatuko du, domekan, Jauregibarriako landetan. Kadete mailako proba 11:00etan hasiko dira, eta gazte mailakoa, 12:00etan. Bata zein bestea euskal zirkuiturako puntuagarriak izango dira. Zirkuituak hiru kilometro inguruko luzera du, eta ez da oso gogorra.

Aldapa bat edo beste kenduta, gainerako ibilbidea osoa laua da. Ikusi egin beharko da euriak zirkuitua zenbateraino lokazten duen.

Neska kadeteetan, Iurretako CAF Engineering taldeko Amaia Lartitegi da sailkapeneko liderra, baina ezin izango da etorri, Euskadiko Selektzioagaz Espainiako Kopako proba bat lehiatuko duelako Katalunian.



Gazte mailako ziklistarik onenetakoak batuko dira.


García zazpigarrenez irabazle Bergaran

> KORRIKA J.D.

2010etik hona, Bergara eta Sorluze lotzen dituen Antxintxika probak garaile bakarra ezagutzen du gizonetan: Dabid García (Durangaldea Running). Zazpigarrenez jarraian irabazi zuen asteburuan.

Durango Kirol Taldeko Aitor Mimenza elorriarrak eta Oier Ariznabarreta durangarrak amaitu zuten bigarren eta hirugarrenen. Beraz, Durangaldeko korrikalariak osatu zuten gizo-

netako podiuma. Garciaeren taldekide June Arbeok bigarren amaitu zuen emakumeetan.



Goiena

Bizkaia-Durangok hiru lasterketa ditu Hegoafrikan

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Bizkaia-Durango txirrindularitza taldeak hiru lasterketa lehiatuko ditu Hegoafrikan, azaroaren 13tik 21era. Europatik doazen lau taldeetako bat izango da; gainerakoak Hegoafrika bertakoak dira. Hiru lasterketak 1.1 edo 1.2 mailetakoa

dira. Lau txirrindulariko taldea eramango dute, eta tartean dade Mavi Garcia taldeburua eta Lourdes Oiarbide.

Ibilbide gorabeheratsuak dira, Garciaarentzat aproposak, eta itxaropentsu doaz; taldeak lan ona egin dezakeela uste dute taldeko arduradunek: “Ez dugu hango txirrindularitza eta korritzeko modua ezagutzen, eta horixe da dugun zailtasunetako bat”, adierazi du Agurtzane Elorriaga Bizkaia-Durangoko zuzendariak.

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA (gizonak)

Iurretako - Gatika

· Domekan, 17:00etan, Larrakozelaian.

Zaldia - Apurtarte

· Zapatuan, 16:30etan, Solobarrian

Elorrio - Padura

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Amorebieta B - Ezkurdi B

· Domekan, 17:30etan, Txolonen.

HIRUGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Durangoko Bikainak-Elorrio B

· Zapatuan, 18:30etan, Tabiran.

Ezkurdi B - Kulturala B

· Zapatuan, 16:30etan, Tabiran.

> ARETO-FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA (gizonak)

Elorrioko Buskantza - Laskorain

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

Sasikoa Durango - Muskiz

· Zapatuan, 18:00etan Landako kiroldegian

EUSKAL LIGA (gizonak)

Mallabia Seguros Altaldi - Elorrioetako FS

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

MAILA GORENA (gizonak)

Abadiñoako Gaztetxe - Aurrera Beti

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Beti Gol - Erandio

· Domekan, 12:30etan, Gernikako Santanape kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Abadiñoako Txopoa - Scorpio B

· Zapatuan, 19:00etan, Traña-Matienako kiroldegian

Mendibeltz - Kukuyaga

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

> SASKIBALOA

EUSKADIKO LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué - Gernika

· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Julza-Zaldia - Derio

· Zapatuan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

Zornotza - The Brewers

· Zapatuan, 20:00etan, Ixerbekoan.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones



ESKORGA

BELDAR-MINI



DUMPERRA

**MINIHONDEATZAILEA
1000KG ZABALERA 0,80**



Eitua industriagunea, 71C · BERRIZ · 946 824 550
Goiko Ibarra, 26 (Eroski ondoan) GERNIKA · 946 271 310
alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



> Inmobiliariak



ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotarixuena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalata 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.



ETXEBITZAK SALGAI

LANDAKO ETORBIDEA



• 100 m2-ko etxebizitza. 4 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, 2 balkoi, 20,25 m2-ko ganbara, eta garaje itxia edo irekia izateko aukerarekin. Terraza komunitarioa. **250.000€.**

FRANCISCO IBARRA



• 105 m2 erabilgarri. 4 logela, sukalde-egongela zabala, 2 komun eta balkoi. Berogailua eta igogailua. **230.000€.**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



• 118m2 gehi terraza. Ataria. Sukalde-jangela, 4 logela, egongela, 2 komun, terraza handia. **195.000€.**

KOMENTU KALEA



• Etxebizitza erdialdean, egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna jarrita. **130.000€.** Negoziagarria.

IURRETA - ELEXALDE



• Etxebizitza estreinatzeko. 2 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, balkoi zabala. Garajea itxia eta ganbara veluxarekin. **245.000€.**

MATIENA - SOLAGURE



• 3 logelako etxebizitza 2 logelakoa bihurtu da. Egongela zabala, sukaldea jarrita, komun bat. Alokatzeko da, erosteko aukerarekin. **110.000€.**

www.inmoduranguesado.com



TABIRA



• 75 m2. 2 logela. Komuna. Sukaldea eta egongela. **ORAIN 115.000€.**

ABADIÑO



• Erdi-berria. 85m2. 2 logela. Jantzigela. Komun zabala. Terraza. Trastelekua. Garajea. **164.000€.**

SAN AGUSTINALDE



• 100m2. DENA BERRIA. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Igogailua. **260.000€.**

M.TORRE



• 113 m2. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. **220.000€.**

ASKONDO



• 83 m2. Sukaldea eta komuna. Berriak. Egongela terraza handiarekin. **195.000€** negoziagarria.

AUKERA



• 86 m2. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Berogailua. Igogailua. Bizitzera sartzeko prest. **110.000€.**

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

ANTZALDATZEKO AHALEGINA, NAHI ETA EZINA

Nire aurreko idatzian antzaldatzearen inguruko oldozmenak eginez nentorkizun, irakurle, pertsonen transformazioa edota antzaldatzeara prozesu oso zaila bilakatzen zela adieraziz gain gaurko ale honetan gure egoera pertsonala edota profesionala antzaldatzera garamatzaten elementuak zeintzuk diren aztertu eta azaltzeari ekingo niola agindu eta esanez. Gaurko idatzia emandako hitza betetzera dator.

Theodore Roosevelt, (1858-1919), Estatu Batuetako Presidentea zenak *“Erabakiak hartu behar diren edozein unetan, onena egokitasunez jardutea da, gero desegokitasunez, eta txarrena ezer ez egitea da”*, adierazi zuen ekintzarik gabe ez dela ezer lorzen adierazteko.

Gure ohitura zahar eta aspaldi finkatutako jarduera errotuak, eremu pertsonalean zein profesionalean ditugun egoerak antzaldatzeko edota aldatzeko, ikaragarritzko zama astun eta eramangaitz bilakatzen zaizkigu. Gure izanaren aldaketarako asmorik onenak garatzeko izaten dugun ohiko borondate, kemen eta gogorik zoliena ere, gehienetan, denboraren joanean, hostoen antzera, ahuldu eta gainbehera etorri ondoren, bertan behera uzten ditugu. Gizakiaren izaera eta nortasuna pentsatzen dugunaren arabera da. Pentsamendua nolakoa, nortasuna halakoa. Pentsamenduak sortzen ditugun bakoitzean neurologia-ibilbide jakin batzuk aktibatzen ditugu, eta une horretan gure burmuinak pentsatzen duguna sentitzera garamatzaten substantzia kimiko batzuk jariatzaren ditu. Prozesu berbera gertatzen da baikor zein ezkor pentsatzen dugunean, baina ezkor pentsatzean jariatzaren diren substantzia kimikoek zorigaitzko, goibel, babesgabe edota dohakabe sentiaraztera garamatzate. Ondorioz, burmuinak pentsamendu bat sortzen duen une berean kimika sortzen ari da, eta oldozmen horiek maitasunezko, ahalmenezko edo alaitasunezko izatean, gure soinak ondo, alai, pozik edota handitasun sentimenduz sentitzera garamatza.

Gure pentsamenduak gure soinari mezuak iragartzeaz arduratzen dira, eta burmuinak gizakia era batera edo bestera sentitzen hasten denaz oharitzen denean, sentitzen duenaren arabera pentsatzen hasten da. Hori guztia denboraren jo-

nean errepikatzen baldin bada, eta aipatu substantzia horiek etengabe sorrarazteari ekiten baldin badiogu, izanaren egoera sortzen dugu.

Orain arte aipatutakoan datza hainbatetan gure buruari egiten diogun eta erantzunik aurkitzeko baino praktikan gauzatzea guztiz zail egiten zaigun itauna: antzaldatzeara, zergatik zaigu horren zail?

Antzaldaketarik egin ezin izateko eragozpen handienetariko bat beti gauza berdina edota modu berdinean pentsatzen jarraitzean datza, edota beste era batera esatearren, gauza berdinetan pentsatzeari uzten ez diogunean ezinezko da gure izana ezertan aldatzea. Antzaldaketa gauzatzearen prozesua nola sentitzen dugun baino haratago pentsatzen ez baldin badugu, jai daukagu, ez baita inolako antzaldaketarik gauzatuko. Irtenbidea, beraz, neurologia-kimika-emozio prozesua antzaldatzean datza.

Zeintzuk dira gizaki bakoitzaren izana antzaldatzera dararamaten eman beharrekoak diren urrats zehatzak? Ez gara aldatzeko ari; antzaldaketaz ari gara, eta kontzeptu bion arteko desberdintasunak non diren lehenengo lehenengotik argi adierazi beharra dago. Aldaketaz ari garenean, aurretiaz geneukan egoerara itzultzerik daukagu. Antzaldaketaz ari garenean maila jasoago batera garamatza, eta aurreko egoerara itzulerarik ez duen mailaz dihardugu.

Antzaldaketara garamatzaten elementuen artean, funtsean, ondorengo bostak aurki ditza-kegu:

Lehendabiziko elementua, *asperraldia*. Hauxe dugu antzaldatzeara sakonetik emango baldin bada ezinbestean behar den lehendabiziko urratsa. Orain dela gutxi nire lagun batek, azken hogeituroteko bere jarduera profesionalaren ondoren erabat aspertuta, lanerako inolako motibaziorik gabe, gauzak egiten jarraitzeko ilusio falta garbian eta egun duen bizitza arruntaz zeharo gogaituta, aspertuta, zegoela adierazi zidan, egun duen bizitza antzaldatzeko behin baino gehiagotan egin dituen era guztietako ahaleginak bere nahi eta ezinen zelai joko bilakatu zaizkiola adieraztera emanez. Egoeraren izaera latza eta gogorra gorabehera, antzaldaketarako beharrezkoa den



lehen urratsa dugu: guztiz aspertuta egotea.

Nire lagunaren antzera, kaskarkeria egoeran bizi izateaz erabat nazkatuta dagoen giza-seme asko eta asko dago, sufrimendu egoeran biziz edota ingurukoekin haserre, irain bizian edota antzeko egoera korapilatsuan, alegia. Egoera horretan izatea hondoa jo izanaren seinale da.

Bigarren elementua *kontzientzia* da, orain arte bizi izandako bizitza guztian zehar asebetetasunik inoiz izan ez dugunaz kontzientzia hartzen dugun ueña da; aipatu egoeraren jabe izatera iristen garen ueña

“Gizakiari dagozkion izaera eta nortasuna bere pentsamenduen kalitatearen arabera da”

alegia. Baina hori baino beste gauza garrantzitsuago batez ohartzen gara gure egoeraz kontzientzia hartzen dugunean, eta hauxe da: gure izanean erabateko antzaldaketarik gauzatzen ez baldin badugu, gainerako bizitza guztian zehar asebetetasunik eza gorrian bizi izaten jarraituko dugula.

Hirugarren elementua *emo-*

zio-aldaketa da. Gizakiak bere burua egoera larri edota latzean aurkitzen duenean samintasun sentimendu handia eta gogorra bizi izaten du, hainbatetan, atsekabe, bihozmin eta neke handiz bakarrik bizi izaten diren egoera horiei irtenbide gutxi edota irtenbide latzak aurki dakizkiekeelarik. Abagune horietan burmuinak hainbesteko samin, nahigaberen edota asebetetasun gorriaren aurrean **nahiko da!!!** esaten du. Behin une horretara iritsitakoan, egoera horretan segundo bakar bat gehiago ez izateko neurriak hartzen ditu burmuinak. Sakoneko emozio-iraultza hori oso garrantzitsua da, hobera egiten hasteko oinarritzko zutabe sendoa jartzea baita.

Laugarren elementu bezala, gure *barrualdera begiratzea* dugu. Aztergai dugun elementu hau oso garrantzitsua dugu, norbere bizitza eta etorkizunaren endaitzaz jabetzen garenean ematen baita. Gure barrualdera bidaia egitean, eginbideak edota besteekiko ditugun betebeharrak erantzukizunak gugandik kanpo beharrean gure baitan direnaz ohartzen gara eta, ondorioz, ez dago inolako zuribide ez aitzakiarik, gutariko bakoitzari dagokigun errealitatea sortzearen erantzule edota arduradun bakarra bakoitza besterik ez baikara. Bakoitzak, dagozkion erabakiak hartuz, zein bizitza

mota nahi duen hautatzeari ekiten dio.

Azkenik, bosgarren elementu bezala, *irekitasuna* dugu. Egungo gizartean elkarrekikotasuna izaten da giza-harremanetarako funtsezko araua, baina bi eragozpen ditu horrela jarduteak: alde batetik mesede-hartzaileak sarritan manipulatu denaren susmo garbia izan omen du. Bestalde, gainerakoei zabaltzen gataizkienean, gure baitan “gaur zure alde ekingo diot, zuk nigatik zerbait egiten baldin baduzu” araua azalera-tzen da. Ez da hori bidea.

Erabateko antzaldatzeara pertsona batengan ematen denean, aurreko elementuaz jardutean aipatu dudan barrualdera egindako bidaiak ezinbestean irekitasunera garamatza.

Antzaldaketa beti dator motibazioaren eskutik. Motibazioa zenbat eta handiagoa izan are errazago izango da antzaldaketa prozesua garatzea.

Euren bizitzetan emaitza desberdinak lortu eta aldatetaz sorrarazi eta izan nahi dituzten gizaki asko dago, baina gero, hori guztia baieztape soil baten besterik ez da gelditzen.

Gure bizitza antzaldatu nahi baldin badugu, dagokigun prezioa ordaintzeko gertu egon behar dugu, antzaldatzeko ahalegina, hainbatetan bezala, nahi eta ezina bilakatu ez dadin.

Gorka Aurre

prakagorri@prakagorri.eus

**“Irakurriz
hazten laguntzeak,
pentsatuz bizitzeko
gaitasuna ematen du”**

Gorka Aurre



Prakagorri
reading skills

Tel.: 944 915 763
prakagorri@prakagorri.es

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Azaroaren 11n, 22:30ean,
Elorriko Ateneoan

Juan de Diego Trio

Joe Smith bateria-jotzaileak eta Dani Pérez gitarristak lagunduta arituko da Juan de Diego tronpetaria (Bilbo, 1968), Arriolako XXVII. Jazz Blues jaialdian, gaur, Ateneoan. 'Uda labor hori' diskoa aurkeztuko dute. Bihar ere izango da musika jaialdi horren hitzordurik, Elorrian: The Allnighters seikote gasteiztarraren musika beltza izango da entzungai.

Antzerkia

:: ABADIÑO

AZAROAREN 12an

20:00etan, 'In vino veritas: tributo a Edgar Allan Poe', Errota kultur etxean. II. Antzerkiño jaialdia.

:: BERRIZ

AZAROAREN 11n

18:00etan, Titirikontu kontari, Kultur Etxean.

AZAROAREN 12an

20:00etan, Jokoz kanpo, Kultur Etxean.

:: DURANGO

AZAROAREN 13an

19:00etan, Dudas Razonables, San Agustinen.

AZAROAREN 17an

21:00etan, Las tulipas, Sapuetxe Gaztetxean.

:: ELORRIO

AZAROAREN 13an

17:00etan, Nomadak, Arriolan.

Urteurrena

:: ZALDIBAR (Cafet herriko taberna)

AZAROAREN 12n

10:00etan, mendi irteera Santamañezarrera.

14:30ean, bazkari herrikoa.

17:30ean, Txapito Guzman eta Ibarako Langostiniek kontzertuan.

19:30ean, Bertsopoteoa. Gauean, DJ CTT.

Bertsoak

:: DURANGO

AZAROAREN 11n

22:00etan, Bertso-trama, Plateruenean. Hitzari Gorazarre zikloa.

Dantza

:: DURANGO

AZAROAREN 12an

19:00etan, Andaluziarren elkartean sorturiko 'El viaje' ikuskizuna, San Agustinen.

Zinema

:: ELORRIO

AZAROAREN 16an

19:30ean, 'La teoría sueca del amor' dokumentala, Iturri kultur etxean.

Berbaldia

:: DURANGO

AZAROAREN 11n

17:00etan, Aitor Ortizen 'Ezkutuko begirada' berbaldia, Arte eta Historia Museoan. Begira Photo.

18:30ean, Oscar Molinaren 'ikusle izatea' berbaldia, Museoan. Begira Photo.

AZAROAREN 12an

11:00etan, Marta Dahoren 'Pensar la fotografía a través de sus exposiciones', Arte eta Historia Museoan. Begira Photo.

12:00etan, Óscar Molina, Laura Terré, Eduardo Momeñe eta Ruben Ariasen arteko solasaldia: 'Panorama: canon y periferias en la fotografía contemporánea', Arte eta Historia Museoan. Begira Photo.

17:00etan, Eduardo Momeñeren 'Algunas propuestas para una crítica fotográfica', Arte eta Historia Museoan. Begira Photo.

18:30ean, Laura Terré, Marta Dahó eta Ruben Ariasen 'Debate para una crítica de la (inexistente) crítica fotográfica', Arte eta Historia Museoan. Begira Photo.

Musika

:: DURANGO

AZAROAREN 12an

22:00etan, Mr. Godson + Blank Slate + Perralobo, Sapuetxe Gaztetxean.

:: ELORRIO

AZAROAREN 11n

22:30ean, Juan de Diego Trio, Ateneoan. Jazz Blues jaialdia.

AZAROAREN 12an

22:30ean, The Allnighters, Ateneoan. Jazz Blues jaialdia.

AZAROAREN 17an

21:30ean, Muchachos Afrobeat Band, Ateneoan. Jazz Blues jaialdia.

:: IURRETA

AZAROAREN 13an

12:45ean, Eibarko Sostoa abesbatza, Aita San Migel elizan.

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 12an

19:30ean, Zazkel + Koiu, Ziztada Gunean.

Zinema

:: ELORRIO

AZAROAREN 16an

19:30ean, 'The Swedish Theory of Love' dokumentala, Iturrin.

Erakusketa

:: DURANGO

AZAROAREN 13ra arte

El lugar de los árboles: Misha de Ridder, Regina Anzenberger, Pablo Castilla eta Ellen Bornkessel-en lanen erakusketa kolektiboa, Museoan. Begira Photo.

:: ZORNOTZA

AZAROAREN 13ra arte


Imanol Marrodanen Frozen trees, Zelaieta zentroan. Begira Photo.

Instalazioa

:: DURANGO

AZAROAREN 12an

11:00etan, Miriam Peñak eta Peru Magdalenak gidaturiko literatur instalazioa: 'Hozkailu barruan lotan', Bibliotekan. Hitzari Gorazarre zikloa.



:: BERRIZ KULTUR ETXEA

El hombre de las mil caras

. barikua 11: 22:00
. domeka 12: 19:00

:: DURANGO ZUGAZA

No culpes al karma

. barikua 11: 19:30-22:00
. zapatua 12: 18:30-20:30-22:30
. domeka 13: 18:30-20:30-21:15
. astelehena 14: 18:30-21:00
. martitzena 15: 20:00
. eguaztena 16: 20:00

Sully

. barikua 11: 19:30-22:00
. zapatua 12: 18:30-20:30-22:30
. domeka 13: 18:30-20:30
. astelehena 14: 18:30-21:00
. martitzena 15: 20:00
. eguaztena 16: 20:00

100 metros

. barikua 11: 19:30-22:00
. zapatua 12: 19:45-22:30
. domeka 13: 19:00
. astelehena 14: 18:30-21:00

Trolls

. zapatua 12: 17:30
. domeka 13: 16:30

Peppa Pig. Las botas de oro

. zapatua 12: 17:00
. domeka 13: 16:30

Los cuentos de Hoffman

. martitzena 15: 19:15

:: ELORRIO ARRIOLA

Yo, Daniel Blake

. domeka 13: 20:00
. astelehena 14: 20:00

:: ZORNOTZA ZORNOTZA ARETOA

100 metros

. barikua 11: 20:15
. domeka 13: 20:00
. astelehena 14: 20:15

Trolls

. domeka 13: 17:00

Still Alice

. martitzena 15: 20:15

> BOTIKAK**BARIKUA, 11**
09:00-09:00**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 12**
09:00-09:00**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Jaio-Olabarrieta**
Errekakale 6 - Elorrio**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**DOMEKA, 13**
09:00-09:00**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 14**
09:00-09:00**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 15**
09:00-09:00**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 16**
09:00-09:00**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 17**
09:00-09:00**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org
eguzteneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 · DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozotegia


Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

**> Zorixonak, Magali!** Gure etxeko prexiosak 4 urte egin ditu! Etxekook asko maite zaitugu, musu potolo bat denon partez!**> Gaur 4 urte betetzen ditu gure Malentxok!** Zorionak eta muxu potolo-potoloak etxeko guztion partez.**> Gure Garazik 5 urte bete zituen azaroaren 7an.** Zorionak eta patxo potolo bat, printzesa! Ikaragarri maite zaitugu!**> Izeik martitzenean urte bi beteko ditu.** Zorionak! Bere anaia Bidart eta familia osoaren partez.

anboto.org MUGIKORREAN

Albistek eta agenda, bizkor eta eskura.**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.**Parte hartu,** galderak eginez, erantzunak lortuz.**Pertsonalizatu,** zure herria aukeratzuz.**DESKARGATU DOAN !**


Albistek, agenda



Telefono gida



Parte hartu



Herriko informazioa jaso

**anboto**
komunikabideak**Lekuan lekuko informazioa**

“Poltsikoaren aukerekin lotutako kontsumo ohituraren aldaketa eman da”

2017ko Peñin Gidak Errioxako kriantza ondurik onena da ‘Launa Selección familiar’ (2014)

> AKUILUA Aitziber Basauri
 Ekoiztu eta merkaturatzeko diren Espainiako 11.500 ardotik gora jasotzen ditu 2017an Peñin Gidak, eta bereziki balietsi du ‘Launa selección familiar (2014)’ kriantza. Errioxako upategi guztien artean kriantzarik baloratuena izan da, Errioxa jatorri deitura duten kriantza ondu guztien artean kalifikazio altuena lortuz. Unax, Iker eta Uxuri hiru neba-arreben artean daramate Launa upategia.

Zer du berezia ‘Launa selección familiar’ ardoak?
 Oso ardo berezia da. Batez bestean, 54-55 urteko mahastiak erabiltzen ditugu, oso produktibitate txikiarekin. Gainera, fruitua moztzen diegu, mahats bilketa heldu baino hilabete aurretik: mahats mordorik onenak sailkatzen ditugu, eta besteak lurrera bota. Hartara, mahats mordo gutxi horien ezaugarriak kantitate txikiagoetan kontzentratzea lortzen dugu. Horrek gorputza, kolorea, testura... emango dizkio ardoari; usaimen aldetik ere, mahats mordo gutxiagoetan kontzentratzen dituzu aromak.

Hor dago gakoa?
 Oso garrantzitsua da mahastiko lan hori. Baina, horrez gain, upategian kontu handiz elaboreatzen dira ardoak. *Launa selección familiar* kriantzak 15 hilabete egin ditu urtero berriztutako upeletan, eta hori ere badu berezitasuna. Haritz frantsesa eta amerikarra erabiltzen ditugu —erdi eta erdi— eta bakoitzak



ezaugarri aromatiko eta tanino jakinak emango dizkio ardoari. Lehengai onik barik ezin da ardo ona egin, baina sukaldariaren ezaugarriak ere garrantzi handia du, eta horretan goratzen da Iker anaiaren lana. Gure ardo guztiak oso ondo baloratuta irten dira. Behetik gora gaitoen upategia gara, eta Arabako Errioxan aipatuak. Hori lan onaren emaitza da.

Familia upategia da zuena. Hortik ardo honen izena?
Launa Plus zen ardo honek badakar bide bat egina. Nazioartean hainbat sari lortu zuen, eta ezagun egin zen. Familia upategia izanik, ekoiztutako ardo-familiaren barruan hori bereiztea pentsatu genuen. Hortik izena. Neba-arrebok elkarren osagarri gara, eta ez dut ulertzen taldea bat falta bada. Hala ere, Arabako Errioxan familia upategi asko daude, ez gara salbuespena. Bizirik dago izpiritu hori.

Bestelako izaera ematen dio?
 Ezagutza, teknologia eta lehengai onak izanda, kantitate txikitik, produkzio handiko upategiek baino kalitate hobeko ardo egiteko gai gara. Gertatzen dena da, merkaturatzen, produkzio handiko upategiek ikusgaitasun gehiago dutela; ezagutu egiten ditu jendeak. Ezagutzera emateko beste lan bat dugu guk sommelier, maitrè edo gidekin.

Zer behar du ardo on batek?
 Mahasti onak —zaharrak izatea ez da ezinbestekoa, baina, bai garrantzitsua—, upategia teknologikoki eguneratuta iza-

tea eta ezagutza duen lantaldea. Gurean Iker da orkestraburu.

Gero eta mokofinagoak gara?
 Ardoaren inguruko kultura bat hedatzen ari dela uste dut, baina, talde bi bereiztuko nituzke: ezagutzak, interesak edo gauza desberdinak dastatzeak emandako ikuspegi horretan oinarritutako mokofina batetik; eta, bestetik, ezagutzen dituen produktuetan oinarritzen den eta kontsumitzen duen horretatik irteten ez den segmento handi bat. Errespetagarria da guztiz, baina, azken hori, normalean, upategi handien produktuekin lotuago dago. Ikusgaitasun handiagoa dute merkaturatzen, eta hori ez dago kalitateari lotuta.

Modan dago ardoa?
 Bai. Baina, irudi kontua ere bada. Urteko ardo zoragarriak daude, baina, ematen du kriantzak halako prestigioa ematen duela. Egongo da urteko ardo gustatzen ez zaionik, baina, esango nuke, askok kriantza eskatzen dutela hala ohitu direlako, ez urteko ardo onik ez dagoelako. Belaunaldi aldaketan, poltsikoaren aukerekin lotutako kontsumo aldaketa eman da.

Izena du Errioxako ardoak. Baina, mundua zabala da.
 Errioxa zaleak gara hemen, bai. Jatorrizko izendapena gara eta, duda gabe, garrantzitsuak. Baina mundu osoko ardoekin partekatzen dugu lekua, eta ardo oso onak daude. Baina ondo kokatuta gaude gu ere. Badago Errioxakoetan berezia den zer-bait gura duen kontsumitzaile profil bat; hortxe dago Launa.

LAUHORTZA

UXUNE MARTINEZ

Soziologoa



Amerikanuen Trumpolina

Obamak “Yes, we can” esan zien estatubatuarrei duela urte batzuk, eta hauek sinetsi eta tranpolinetik salto egin dute asteon. Asteazken goizetik aurrera, hedabideek ez dute izan besterik. Bai, Donald Trumpek irabazi ditu hauteskundeak, eta Estatu Batuetako presidentea izango da.

Tranpolinetik salto egin dute amerikaneek ere, telebistan ikusteko aukera izan genituen Euskal Herritik joandako euskaldunen ondorengoak, Trumpekin alde hitz egiten euskara gartzen. Euren esanetan, Trumpek basaz lohitutako historia zuen, baina esandakoa egiteko gai omen da, eta Clinton, aldiz, gezurti hutsa da, beraz, ezin fidatu hark esandakoaz.

Lokatzak irabazi du, eta mundua nora ezean joan da momentu batez.

Burtsek jaitziera nabarmenak pairatu zituzten lehen orduetan. Europako alderdi eskuindar erradikalenak biziki poztu ziren, eta Marine Le Penek pozik zoriondu zuen Trump. Munduko agintariekin, ustekabearen aurrean, birkokatze tarte bat behar izan zuten, baina adierazpen bateratzaile eta adeitsuak bota dituzte egunotan. AEBetako presidente berria elkarren arteko harremanak sendotzeko onuragarria izango dela esaten entzun nion Alfonso Dastis Espainiako atzerri-ministroari asteazkenean, 9:30etan. Plaust! Dena ondo bidean ostera.

Estatubatuarrek tranpolinetik salto egin dute, ez dakigu urperatu edo bizirauteko gai izango diren. Guk zipiritzina nabaritutako ditugu. Baina ez bota errua Trumperi. Azken batean, gure aititak esaten zuen moduan, “zelako elizaldea, halako abadea”. Merezki duten presidentea dute, sinistu ezinik gabiltzan arren.

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902